MIKEL TABERNA

Txokolatezko dinamita

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2001 Mikel Taberna
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2001eko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

HEGAKA IBILI NAUN

Bi ahizpak izerditan ailegatu ziren geltokira. Trena huts egiteko beldurrarengatik baino are gehiago nerbiostuak joaki zirelako. Goizean goiz mugitu behar izan zuten. Gorputzak bokatako barreño handietako ur epelean garbitu eta igandeko arropak jauntzi zituzten. Gazteak haizeari usain egin zion, animaliek egiten duten bezala, udaberri urrin hura bere oroitzean gordetzeko, bertzeak ez bezalakoa izan behar zuen egunaz sekula ere ez ahanzteko. Zaharrenak bere senar muturbeltza konbentzitu behar izan zuen. Beharrezkoa zela bera ere joatea. Nola utziko zuen Margarita bakarrik joatera! Ahizpari lagun egin beharko zion hain egun seinalatuan! *Maiatzaren ogeitabiyan Hendayan izanen naiz, Hotel Royalen. Antxe esperatuko zaitut. Rafael.* Hileroko karta bakoitzak mailuaren modura jotzen zuen Margaritaren baitan. Urte bat lehenago, lehenbizikoa uste gabetanik ailegatu zitzaionean, ez zuen pentsatzen gizonak hain temoso segituko zuenik. *Atrebentzia aundiyarekin eskribitzen*

dizut, emen nerekin 'tambo' edo beitegi berian aritzen den zuen osaba Fernandok permisoa emanta. Nolanahi ere, momentu hartan berak ere ez zuen bertze inor inguruan, eta onartu zuen sartzea harremanaren jokoan. *Nere bakardadean egoten naizelarikan, begiak itxi eta nere laguna izan nai luken emakume pollit baten begiak billatzen ditut buruko nere utsean. ¿Zuk nai ote zunuke izan arrapatu ezin duten lagun ori?*

Trena poliki-poliki joan zen mantsotzen Alkasorora sartzean. Sugandilak burni eta oholen artean ikaratu egin ziren, lehenbiziko aldia balitz bezala, eta biligarro eroenak espantuka iratzarri zituen gaztainaren adarreko gainerako senideak. Zakurrak jautsi zirenei hurbildu zitzaizkien, arroparen xoko guzietan eta oinetakoetan usainka, goitiago bizi ziren zakur jendeen berri ikasi nahizik, eta ostatuko bezeroek burua bueltatu zuten, behientzat belarraren parekoa baitzen haientzat jendearen joan-etorria. Guardia zibilak tente jarri ziren, euren zapel oker, fusil eta kaparekin, fotografo ikusezin batek, dena eta denak behar bezala hartzeko, egin behar zuen erretratuan agertu nahi balute bezala.

Elizondotik Irunera zihoan ferrokarrilak jende franko zeraman igande hartan. Azienda-tratanteek ez zuten atsedenik hartzen, kontrabandorako edozein egunek igual balio baitzuen, eta, leihotik begira, disimuluan erreparatzen zioten bueltarakoan paketeak bota beharko zituzten tokiari. Senar-emazte baserritar batzuen magalean saskia ageri zen, etxeko ilarrez eta Urrabiako amuarrainez hornitua, Hondarribiko osaba fraideak abisua bidali baitzien, komentuan aspertuxeak zeudela beti itsasoko arraina jaten. Atorra xuriz jauntziriko gazte batzuk pentsakor, Errenteriara neskato joanak zituzten andregaiak lehen bezain andregai aurkituko ote zituzten kezka. Berako mediku motela, bibotea eta zapela, Donostiaraino ailegatzeko ideiarekin, portu aldeko etxe zaharrean neska gazte baten gonapean bere baitako oinazea arinduko ote zitzaion ametsetan. Soldadu axolagabe batzuk, Santanderren edo Leonen destinoa zutenak, zigarroa erretzen eta neskatxei zernahi erranka. Ezkonberri batzuk ere bai, etxetik sekula atera gabeak, Irungo apopilo-etxeren batean lo egin eta

biharamunean bueltatuko zirenak, han galtzen ez baziren... elkar galtzen ez bazuten!

Baina igande-pasa herritik aparte egin gogo zuten seinalatuenak gazte koadrila batzuk ziren, oihu eta orro, denen artean nabarmen agertu beharrak. Real Union eta Barcelonaren arteko partida ikustera joaki ziren, eta haien artean bazen bat, harro baino harroago, Irazoki, *Alkasoroko lokomotora*, Irungo taldeko erdilari ospetsua, Emery, Urtizberea, Regueiro, René Petit eta gainerakoekin aritzen zena. Margaritaren begiek haietako batenekin egin zuten talka, Bordako Luisenekin. Gainerakoak bezain kontent agertu nahi bazuen ere, goizean goizetik zahatotik tiraka, neskak bazekien mutilaren baitan tristurak kabia egina zuela. Aspaldi xamarreko kontuak ziren, baina ez horregatik ahantziak, «Hagitz mutil ona haiz, biño nik ez haut maite! Bertze norbait bilatu beharko duk! Aisa harrapatuko duk nik biño hobekiago maiteko hauen norbait!». Luis desegina gelditu zen, ezin konprenitu.

Zazpi kortejatzaile baztertuak zituen, bata bertzearen ondotik, Txapeltegiko alaba gazteak. Ez zuen nahi baserri batean preso eta lotua gel-

ditu, arbola lurrari bezala, ahizpa senar zakarrarekin zegoen moduan. Ttikitatik amets egin zuen hegaztia zela, gorputzak ez zuela kargarik eta haizearen menera mugitzen zela. «Gaur ere ibili nion hegaka!», erraten zion goiz frankotan ahizpa Ixabeli, arraso sinetsia kontatzen baitzuen goitik ikusiak zituela Alkasoroko parajeak: Urrabia ibaia, trenaren geltokia, kasinoa, frontoia, eliza, plaza-zelaia, Txapeltegi... mendien gainetik pasatzen zela eta itsaso finik gabea agertzen zitzaiola begien parean. Gorputzez ere usoaren iduria zela erraten zuen aunitzek, burua ttentte eta bularra goiti ikusten zutenean. Baina Alkasoroko mutil bakar bat ere ez zen gauza izan hura sarean harrapatzeko, ezta ehizean nahiz arrantzan trebeena zena ere. Gero, Rafaelen kartak ailegatzen hasi ziren, karta luzeak, *bi litro keroxeno gastatu ditut lerro ok eskribitzeko,* Margaritaren ametsari paisaje berriak gehitzen zizkiotenak. Kartaren azala irekitzearekin, parrastaka isurtzen zitzaizkion begien aitzinean Uruguaiko zelai berdeak, hango behiak, *battugu bortzeun buru, emen, Rincon del Cerron,* haragia parrillan errea eta osaba Fernando, eguneko lan aldia

egin ondotik, ilunabarrean akordeoia jotzen. Azkenekoetako batean garbi adierazi zion lehendik ere sumatzen zion borondatea, *nerekin esposatzen bazara, iAmeriketara ekarriko zaitut!* Orduan bota zuen aitak urte osoan kontu haren gainean erran zuen gauza bakarra, «Andrea nahi badu, datorrela bila!». Eta Rafaelek baietz, etorriko zela, *maiatzaren ogeitabiyan.*

Trenetik jautsi ondotik, muga aldera abiatu ziren. Estazioan militar itxurako kanpotar bati eman zioten begia, maleta handi batzuk eskuetan eta eskopeta gordetzeko moduko poltsa luze bat lepotik baitzituen. Hagitz xuabe egiten zuen solas, «Querría xegar hasta Alkasoro, si ustedes tuvieran la amabilidad...». Irungo karrikak jende erreka bat ziren, oinez espaloietan eta bizikleta gainean kamioan. Gurdiren bat edo bertze ere bai. Automobil bat pasa zen klaxona joka eta txoferrak, gizon bibotedun elegante batek, irri ergel bat bidali zien, eskuarekin adio egin bidenabar. Ixabel lotsatu zen, baina Margarita ohartu ere ez zen egin, burua bertze nonbait baitzuen. «Ez duzue izautu?», erran zien gizon txar batek, «Erregea zen! Alfontso treze!».

Hamar bat urte lehenago, Afrikako gerrara joateko abisua hartu zuen egunean, segituan hasi zen Rafael maleta prestatzen, Arantzako bere etxean. Amak harritua begiratzen zion semerik finenari. Zenbat aldiz pentsatu ote zuen koplako gereziondoaren azala baino finagoa zela!

– Gerrara joan behar duk? Ez duk muga pasatu nahi? Badakik battugula jendakiak Oletan!

Rafaeli irria eskapatu zitzaion.

– Ez noaie Iruñera ama. Pasaiara noaie, eta handikan itsasoz Ameriketara. Artzai. Alkasoroko batekin solastu naiz elkarrekin joateko. Fernando Astibia du izena. Txapeltegikoa. Han ez omen da lanikan falta. Eskribituko dizut ailegatzen naizelarikan.

Oinez abiatu zen malda beheiti. Ordu bat bederen beharko zuen trenbideraino. Ez zuen gibelerat begiratu nahi izan. Galtza luzeen azpian bi zangoak daldara batean. Tokitan zen Amerika! Gobernuarentzat hala bihurtu zen desertore. Harez geroztik ezin zen Espainiak agintzen zuen lurrean sartu, hala egin izatera preso hartuko zuten.

– Bonjour, mesdemoiselles, hotelean gela nahi zinukete, noski?

– Ez, hemen behar duen jaun batekin solas egitera heldu gara.

– A, bon! Eta nola du izena jaun horrek?

– Rafael Alzuri.

– Bai, badakit nor den. Pasa zaizte sala horretara eta hartu gustuko tokia. Nik deituko diot. Noren partez erran behar diot?

– Erraziozu Margarita Astibia etorri dela.

Gela gorriz jauntzia zegoen. Ardo kolorez. Kortinak, lurra, altzariak... Paretetako koadroetan jendea hagitz apain ageri zen. Elegante. Etxe ederrak. Halaxe izanen zen Ameriketan. Margaritak poltsaren barrenean zuen Rafaelen erretratua, kartaz bidalia. Begiratu gabe ikusten zuen, seinalerik ttikiena ere nolakoa zuen errateko kapaz. Atzean bertso bat eskribitu zion, *nere jito beltxarana / ur bazterrian lo, etzinta / killika ditun belarrak / inai niñake aize ori izan!*. Berak ere bidali zizkion bertso batzuk, hark eskaturik. Paulo Yanzi lesakarrak Afrikako gerraz paratu eta paperean zabaldu zituenak. Ixabelen kontra estutu zen nerbioei ezin kontuz. Bihotza ziztu bi-

zian sumatzen zuen. Ahizpak, hotz eta serio, lasaitzeko erran zion.

Kortina gorria eskuarekin alde batera egin eta bi gizon sartu ziren salara. Bi ahizpak zutitu ziren. Gizonetako bati irria agertu zitzaion ezpainetan eta emakumeengana hurbildu zen. Margaritak bi pauso eman zituen haren bidera. Gizonak besarkatu zuen eta musu eman zion bi mateletan, deus erran gabe. Ixabel izitua bezala zegoen, bere tokian geldirik. Margaritari begiak handi-handiak jarri zitzaizkion eta gorritu zen, lepotik kopetaraino. Kristoren beroa sumatzen zuen bere baitan. Gizonak besoa paratu zion lepoaren gainean, eta kortina ondoan segitzen zuen lagunari begiratu zion.

– Ikusi! Ze neskatxa txarmanta!!!

Rafaelen laguna Uruguaitik berarekin batera bapore berean etorria zen. Xabi zuen izena. Abenturazale bat. Hura ere desertorea omen, baina muga pasatzeko ideia zuen. Ba omen zuen lagun bat Iruñe aldean eta harat joan gogo zuen. Moldatuko omen zen paperak egiteko. Ez zuen justiziaren beldur handirik.

Elkarrekin bazkaldu zuten laurek. Giroa berotzen joan zen, platerak garbitu eta basoak hustu ahala. Rafael ez zen isiltzen, Ameriketako kontuak kontari. Margarita, begiak lore, ohartu zen gizon haren hitzek moxkortzen zutela. Bere gorputza txirrista batean sentitzen zuen, eta berak uzten zuen erortzera, inolako beldurrik gabe. Xabi saiatu zen pixka bat Ixabelekin, baina ahizpa zaharrak bide guziak erre zizkion. Emakume ezkondu bat zen. Ezkontza triste batean loturiko emakume bat. Zein diferenteak bere ametsak eta ahizpa gaztearenak! Bere ametsetan lorezelai kolorez beteak agertzen ziren. Bera hurbildu eta lore ezin ederrago batzuk hartzen zituen. Eskuan zituela, ordea, zimeldu egiten zitzaizkion denak. Ekarri ezin zituen umeak zirela pentsatzen zuen Ixabelek. Senarrari gero eta gorroto handiagoa zion.

Bazkalondoan, musean hasi ziren, Rafaelen gonbitari kasu eginda. Bi biren kontra. Abenturazalea zerbitzari eder bat tentatzen hasi zen, eta Ixabeli tristurak kasatu zitzaizkion karta onak etortzearekin. Rafaelek eta Margaritak txorake-

riak erran eta irri bertzerik ez zuten egiten. Aranztarrak bidaia bat egitea proposatu zien.

Karrikara atera zirenean, bidearen bertze aldeko zineman, Marlene Dietrichek begiarekin keinu egin zion Margaritari *L'ange bleu* iragartzen zuen karteletik. Automobil batean sartu ziren laurak eta txoferrari Miarritzera joateko agindua eman zioten. Haizea firi-firi zebilen, eta zerua urdin-urdina zegoen. Itsasoaren azkeneko mugaren marra ezin zen bereizi. Kolore bera goitiak eta beheitiak. Gizonak kantatzen hasi ziren, «¡Ay, qué placer sentía yo! cuando en la playa sacó el pañuelo y me saludó...».

– Ibili zate egundaino hegaka? –galdetu zien Rafaelek–. Ibili nahi duzue?

– Nik ez, nik ez! –erantzun zion Ixabelek izituri k.

– Ni auniztan ibili niok! –bota zion Margaritak.

– Geroztik, ez dun beldurrik izanen!

Miarritzeko aireportuan, Ixabelek eta Xabik ostatuko leihotik ikusi zuten nola joaten ziren Rafael, Margarita eta pilotu bat, pistan barna oinez, aireplano bateraino. Hirurak sartu ziren barrenera, eta segituan hasi ziren mugitzen aparatuaren

errotak. Ahizpa zaharrak inbidiaz eta beldurrez begiratzen zuen. Gurpilak bueltaka hasi ziren, ezarian-ezarian lehenbiziko, eta gero eta habaila handiagoan. Lurretik altxatu zenean Margaritak oihu luze bat egin zuen, eta hegaka ibiltzearen sentsazio ezaguna berriz ere sentitu zuen. Bi eskuekin bere aurpegia ukitu zuen, bere burua, bere ilea, Rafaelen besoa... ametsetan ez zegoela sinesteko. Mendien gainetik pasatu ziren eta itsaso mugarik gabea agertu zitzaien begien parean.

– Ikusten dun Amerika? Han urrun-urrun!!!

Esku bat kopetan paratu zuen, eta begiak ttiki-ttiki egin zituen, dena hobeki ikusteko. Arrazoi zuen Rafaelek, han urrun ikusi zituen portu bat eta zelai berde ikaragarri handiak, aziendaz beteak, baita etxe xuri ttiki batzuk ere, eta haietako batean osaba Fernando, bere akordeoia hartua zuela, irriz begira eta pieza frantses bat jotzen. Rafaelek bihotzaren kutxa ttipian ekarri zuen galdera ezpainetan utzi zuen zintzilik.

– Esposatu nahi dun nerekin?

Aireplanoak mugimendu zakar bat egin zuen eta Margaritak lehenbiziko aldiz bertigoa sentitu

zuen. Bi besoekin fuerte-fuerte estutu zion gerria Rafaeli eta, begiak itxirik, bere burua erortzera utzi zuen gizonaren bularraren gainera, haren suge-eskuak neskatxaren izter xokoan pausalekua bilatzen zuen bitartean.

ERREGE EGUNEKO PANPINA

Aitzineko gauean ilargi betea izan zen, eta halakoetan aitak pattar botila espres erosten zuen, afalondoan suari begira pasatzen zituen ordu luzeetan bera ere suak har zezan. Egun hartan ere halaxe gertatu zen eta, bere buruarekin solasean hasi zela ohartu ginenean, anaiak eta biok alde egin genuen. Ni anaiaren ondotik. Banekien nora eramanen ninduen.

Errotariaren etxea herritik bereiz zegoen. Isilka pasa ginen ate nagusiaren paretik, atzeko aldeko baratzeraino. Gaua ez baitzen gau, platanondoaren gerizpera sartu behar. Anaiaren katabegiak ezker-eskuin eta goiti-beheiti ibili ziren. Harrapatzen bagintuzten han, komeriak izanen genituen.

Hantxe gordeak gelditu ginen esperoan. Ez denbora sobera. Lehenbiziko pisuko leihoa argitu egin zen. Puntillazko kortina zuriak izanagatik, nahiko garbi ageri zen barrenaldea. Hiru ateko armairu bat, erdikoan gorputz osoko ispilua, eta gelara sartzeko atea. Ikusten ez zen partea gure

imajinazioak gehitzen zuen: ohatze bat, bi mesanotxe alde banatara, panpina bat etzinda, gurutze bat paretan...

Neska gazte bat zen argia biztu eta barrenera sartu zena. Huraxe bera. Agertu eta desagertu zitzaigun bizpahiru aldiz gure begiekin jostetan. Gero, zutik, ispilu luzeko bere irudiari begira gelditu zen. Matelak eta kokotsa bere behatz finekin ukitu. Laztanka. Arropa eraunzten hasi zen gero. Hura gorputz ederra! Eskua bakarrik joan zitzaidan galtzen azpira, anaiarenak erakutsia zion bezala. Banaka-banaka kentzen zituen hostoak, mantso-mantso, ikusleek horixe nahi genuela baleki bezala. Gure ipurtargiak gau ez zen gau hartan ere biztu egin ziren arte.

Aita lurrean luze harrapatu genuen, botila erdi hutsa eta su itzaliaren arrastoen ondoan. Bera karroan utzi eta gero, mantak hartuta arbolaren azpian etzin ginen. Murieta jotzen genuen aldioro, intxaurrondo hura izaten genuen gure xaribela[1], aitak erraten zuen bezala. Bera eta bere magala.

Ez dakit nor ibili ote zen anaiaren kaskoan dantzan, udazkeneko gau hartan. Leihoko nes-

katxa hura bera akaso. Ni, oroitzen naiz zeruko izarrei begira egon nintzela luzaro eta, lo gelditzean, amuarrain arrautzak zirela egin nuela amets, eta nola bakoitzetik amuarrain ttiki bat ateratzen zen, eta nola putzu zuri batean galtzen ziren denak.

Barrenak libratzeko gogoak eta goizeko ihintzaren freskurak iratzarri ninduten. Sobera ezaguna nuen usainak abisu eman zidan, anaiaren lepoko zolda aurkitu behar nuela sudurraren parean begiak irekitzean. Bi gorputzak elkar hartuak zeuden gaua goxoxeago pasatzeko.

Altxa eta ibai bazterrean hustu eta lasaitu nintzen. Argitu bazuen ere, ez zebilen inor landabideetan, igandea baitzen. Aita ikusi nuen ondotik karrotik jausten. Ikusi ez banindu bezala, hitzik erran gabe hurbildu zen ibaira. Pixa egin zuen patxadan, zerura begira, eta aurpegia eta eskuak ur hotzez busti gero. Arbastak biltzen hasi nintzen su egiteko.

Anaiak ere begiak ireki zituen hondarreko eta, nik kafea prestatzen nuen bitartean, bezperan amuak eta hariak utzi genituen zokora joan zen. Ur beltza zinkezko ontzietara bota eta,

haren beroa eskuetan sentitzeko, xurrupaka hasteko momentua gibelatu genuen. Hala geundela etorri zen bueltan. Ezagun zuen kontent zegoela, irria eskapatzen baitzitzaion ezpainetatik. Txaketa azpian zekarren gauaren oparia, pikuhosto batzuetan bilduriko lau amuarrain eder. Ongi hasi zen eguna, zerbait gehiagorekin segurtatuko genuen mantenua, eta akaso sos batzuk bildu ere bai, amari etxera eramateko itzultzen ginenean. Hura izaten zen gure eguneroko martxa.

Ongi oroitzen naiz goiz hartaz, ustekabeko bisita izan genuelako. Igandea zen, eta bederatzietako meza nagusira etorririko jende guzia ikusi genuen sartzen elizara. Gu ez ginen paioekin[2] joaten horietara. Aitak ezpainak mugitu zituen, zapela burutik kendu eta esku batekin petxuaren kontra kontuta. Anaiak eta biok bagenekien isilik eta serio egon behar genuela halakoetan, ez zer erraten zuen ordea. Akabatzeko, amen hirurok.

Txapelokerrek ere meza huts egina zuten, nonbait. Harro eta fanfarroikeriaz, Oko-n lapurrak ibiliak zirela eta beldurra sartu nahi izan zi-

guten. Alferrik ordea, aita zakur zaharra baitzen, eta ez zuten nolanahi ikaratuko espantuzko sainga haiekin. Pozoia isuri eta alde egin zuten noizbait ere. «Pestainiak[3], pestea biño zitalago!», bota zuen gure zaharrak, beti bezala. Geroxeago, zubi ondoko txopotegian sare bat konpondu nahian ari nintzelarik, aita norbaitekin solasean sumatu nuen.

Aitaren lehengusua zen, guk osaba deitzen genuena. Karro gainetik ari zen. Karroari tiraka, Mariana, euren mando zaharra. Atzetik lotua bertze mando bat ekarki zuen. Legaria aldean agian izanen zutela harentzat erostuna. Truke baliren[4] bat edo hartzeko ideian (matantza sasoia hurbil, eta nabala zeri sartu bilatu behar). Ez galdetu niri nondik eskuratua zuten. Osaba halaxekoa zen! Ez zen bakarrik heldu. Anjelita zuen lagun, alaba, gure lehengusu ttikia, alegia, ni ikusi orduko karrotik salto egin eta niregana lasterka abiatu zena.

Ondo-ondoan izan arte segitu nuen sarea konpontzen ariko banintz bezala. Pixka bat nerbiostu nintzen.

– Egun on, primo! Zenbat harrapatu ttuk gaur?

– Gauaz multxo pollita, egunaz seiatu ere ez gaitun egin oraindikan, señorita!

– Zuek bai señoritoak! Seiatuta ere ederrak zate zuek arrantzaletako!

Irri egin nuen, banekien-eta ezinezko nuela solasean kontra hastea Anjelita deabru harekin. Batzuetan *aingira* erraten nion, arraio bizia eta harrapatzen hagitz zaila zelako.

Aitari lagun egiteko bidali omen zuen amak, eta bidenabarkoan saski batzuk ere ba omen zituzten saltzeko. Bueltarakoan ibai bazterreko zumea pikatu gogo zuten, etxean ama-alaben behatz antzetsu haiekin zernahi gehiago egiteko.

Hala geundela, anaia etorri zen isilka ondora. Xarbo ttiki bat zekarren eskuetan, eta abisatu gabe sartu zion Anjelitari lepo atzean, bizkarretik beheiti.

– Gor alu hori!!! Urde zerria, ze sartu didak! –hasi zen lehenbiziko garrasi eta saltoka, eta gero anaia txoroari harrika.

– Kasu emantzan, igual ausiki eginen din hartan! –erran nion nik, eta niri kolpeka orduan hura. Irri egin genuen gogotik!

Gustatzen zitzaidan. Gorputz-azalez fina baina aldi berean gogorra zelako. Berak hain ongi josten zuen zumea bezalaxekoa. Mingain kantaria zuen, zorrotza (puñala ere izaten ahal zela geroago ikasi nuen), eta gorputz dantzaria. Bizia demonio! Aingirak baino biziagoa... horixe erran nahi nuen.

Ttiki-ttikitatik elkarren ondoan ibiliak ginen. San Migel eliza zaharraren inguruan koadrila osoa, Nikolas, Jero, Eduardo, Petaka (berak ere ez zekien orduan Anastasio zuela izena)... baina batez ere ur bazterrean, Ruizen lantegiaren pareko arboldegian eta. Beti Eduardo buru, Nikolas anaiarekin, haiek baitziren zaharrenak. Eduardok mingaina eta agindua, baina Nikolas gorra beti erneago eta trebeago. Gu, gaztexeagoak, haien ondotik beti. Morroi. Han gure etxola eta gure planak: gaixtakeria nola egin, bertze koadrilen kontra nola borrokatu...

Eta orduak eta orduak urari begira, aita Murietako intxaurrondoaren azpian suari begira

egoten zen bezalaxe. Zenbat adaxka bidali ote genituen itsasoraino ailegatuko ziren esperantzarekin. Haiek ziren gure barkuak. Piratak, jakina! Edo txingoak egiten harri xabalekin ur azalean. Ez aspertzen gu! Nola ikaratu ginen Eduardok Nikolasi harriarekin buruan eman zionean nahi gabe. Nikolas gizajoa odoletan, guk urarekin garbitu nahi eta orduan eta zabalduago odola!

Anjelita zen gurekin juntatzen zen neska bakarra. Aspertzen omen zen gainerako neskekin. Eta gure artean edozein mutikoren pare hartzen genuen. Ez baitzuen sekula atzera egiten. Gu kapaz baginen, bera ere bai. Horrela denbora dexente ibili ginen.

Bularrak bat-batean betetzen hasi zitzaizkion arte.

Fumatzen-edo hasiak ginen denboran izan zen, eta, nahi gabe, nik biztu nuen sua, amak tomate eske baratzera bidali ninduen arratsalde batean. Ruizen fabrikaren parean pasatzean, bi automobil beltz eta jende multzo bat ikusi nuen. Jende aberatsa, zapela buruan eta ttattarra lepoan. Zorroak nonbait ederki hornitu ondotik, fabri-

ka ikustera etorriak bide ziren. Han zen Ruiz zaharra bera ere. Halako batean, zapeldun haietako batek buelta eman eta erretzen ari zen purutzarra airean bota zuen. Nire hanketaraino! Hura erregalua! Bost pezetakoa emateak ez zidan poz handiagorik eman izanen! Hura hartu eta lasterka joan nintzen lagunengana, tomateez ahantzirik eta tripaundi haien irriei kasurik egin gabe.

Bertzeek ezin zuten sinetsi. Arboletatik zintzilik izaten ziren soka moduko adaxka idor batzuk erretzen usatuak ginen. *Xorta* erraten genien. Edo lurretik harturiko xigarro muttur zupatuak, bertzela. Baina hura bezalako puru puskarik, sekula ez!

Nikolasi mixtoak galdetu eta biztu egin nuen. Nik eman behar nion lehenbiziko musua. Behatz artean nuela, txorakeriak egiten hasi nintzen. Nikolasek, Petakak eta Anjelitak irri egin zuten. Ohartu baino lehen, Eduardok eskutik kendu eta bere ezpainetara eraman zuen. Bera zen taldeko jefea, eta ezin zuen eraman ni bezalako mukizu bat hari deusetan gailentzea. Norbaitek ipurdian akuiluarekin egin balit bezala, salto batean lepotik hartu nuen Eduardo, ni halako bi zela pentsa-

tzen hasteko astirik izan gabe. Hartzak xakur ttikia bezala, ni airean hartu eta arbola baten kontra bota ninduen. Orduan sartu zen Nikolas. Fuerte aritu ziren, hagitz fuerte. Ordukoa du anaiak kopetako saketsa. Baina azkenean Eduardoren muturrak ibaiak ekarririko harea finari musu eman behar izan zion.

Hemen ubeldu, han zauri, arropetan urratuak, etxera bidean joaki ginela, Petakak erran zidan Anjelitagatik gertatu zela gertatu zena. Anjelitari titiak ateratzen ari zitzaizkiolako. Orduan ez nuen tutik ere entenditu, baina kontua da handik aitzinera Anjelita ez zela gehiago guregana etorri. Ezta Eduardo ere.

– Joxe! Hi ere gorra, edo ze!

Anjelitak oihu egiten zidan despeditzeko, karroa abiatzeko prest baitzegoen. Nonbait osabak presa zuen lehen baino lehen mandoa bere gainetik kentzeko. Anjelita gibelean zihoan jarrita, hankak zintzilik, esku batekin adioka eta bertzearekin zamari eder haren muturra balakatzen. Nik ere eskuarekin agur, gehiago iduri izan behar nuen arbola tente eta mugitzen ez dena,

ezen ez odol-haragizko gizona, aitak taka! jo baininduen belarri ondoan...

– Erna hadi!

– Aita, ikaratu nauzu!

– Ze, Josetxo, gustatzen zaik, e? Ez da hala?

Errezeloa dut ez ote nuen arraso ergel aurpegia paratu, irri zozoa ezpainetan, burua bueltatu eta baiezko keinua egin nuenean.

– Nahi duk mirunitako[5]? Dagonekoz hemezortzi urte eginak ttuk eta hasi beharko diguk zerbait pentsatzen!

Lizarrara itzuli ginenean aitak amari erran, eta osaba-izeben etxera joan ziren solas egitera. Dudarik gabe akort jarri izanen ziren, eta ezkontzarako prestatzen hasi ginen denak. Bagenuen koxka ttiki bat, Anjelita nire lehengusua baitzen, lehengusu ttikia, baina lehengusua azken finean.

Mariak, don Estebanentzat aritzen zen serorak, kopetabeltz hartu zituen aita eta osaba, etxeko atea ireki zienean. Beharrik apezak berak aditu zuen norbait joana zela bisita egitera. Bere gelatik «pasa zaizte!» bidali zien, eta neskamea-

ri burlazko erreberentzia eginez sartu ziren biak, egun berezietako jaunzkera dotorean eta kaxta[6] bana eskuan.

Don Estebani diosala egin eta mahai gainean utzi zioten saskittoa. Apezak segituan altxatu zuen oparia estaltzen zuen zapia: sei amuarrain ttiki, goiz hartan berean ibaitik atera berriak, garbi-garbiak, paderarako prest.

– Zenbat aldiz erran behar dizuet ez dela beharrezkoa deus ere ekartzea nirekin solas egiteko!

Muin egin ziezaioten eskua luzatu bidenabar, buruari jira egin eta Mariari deitu zion, arrainak sukaldera eramateko.

Aisa egin zuten tratua. Don Estebanek berak bidaliko zituen paperak Iruñera, berak eginiko informearekin, eta, zuzenbidez, eguberri alderako etorriko zen baimena. Aita eta osaba, lajaiari[7] eskerrak eta berriz ere muin eman, aitaren egin eta etxera bueltatu ziren, harro eta kontent, Vatikanoko Aita Santuarekin berarekin egon balira bezala.

Berria agudo zabaldu zen herrian barna, berez, haizeak hedatua bezala. Urrunagokoen-

tzat ama aritu zen: Iruñera, Arronitzera, Amesko-ara, Barrankara... jendaki guziei jakinarazi behar zitzaien, nola edo hala.

Eguna ailegatu bitarteko bi hilabete haiek ai-rean pasa ziren. Ia sumakabean erran nahi nuen. Jende guzia, emakume jendea batez ere, jo eta kea aritu baitzen, egiteko bakarra zutela gogo-an: gure ezkontza.

Gizonek egin ez, baina haien kaxkoetan ere, kopetako tapakia kendu izatera, apenas harra-patuko genuen bertzelako pentsamendurik. Hala joan ziren josten esposatzeko sarearen hari gu-ziak: bizilekua, oihalak, arropak, gonbidatuenda-ko aterpea, otordu bereziak...

Ni, berriz, ez nintzen aberastu izanen egun haietako arrantzari esker. Nikolasek bien partez aritu behar izan zuen. Laino epel bat jarri zitzai-dan buruan, eta gorputza ez nuen deusetarako gauza. Zutik kontzen diguten soka guziak moztu balizkidate bezala. Agindu bakarra aditzen nuen nire baitan «hoaie erreka bazterrera eta etzin txopo baten gerizean, eta hago hantxe geldirik, ura nola heldu den eta nola joaki den begira». Egonean egoteko bertzetarako fundamenturik

ez nuen. Eta halaxe gustura. Pox isil bat barrenbarrenean. Goserik ere ez nuen sumatzen.

Anjelita hagitz guttitan ikusi nuen. Eta, gainera, beti norbait zuela lagun. Ez ziguten bakarrik egotera uzten. Hori lege zorrotza baita gure artean. Esposatu aitzinetik ezin izate hori, alegia. Gainera, gero prueba pasa beharko zuen. Pixka bat serioxeago harrapatzen nuen, emakumeago. Ordurako bere burua etxekoandretako hartzen balu bezala. Niri irri murritz bat bertzerik ez zitzaidan ateratzen. «Hau saltsa antolatu dena gure kulpagatik!», pentsatzen nuen nire kolkorako. Berak, ordea, beti botatzen zidan zerbait, «Parkeko estatua ematen duk, Josetxo!». Beti xirika aingira bixi hura!

Baimena ailegatu zelako berria San Andres egunarekin eman zigun Don Estebanek, «San Andres, goizean azaro eta arratsean ez! Berri onak aspaldiko partez!». Uste baino bizkorrago ibili ziren, nonbait, Erromako alde hartan. Feria eguna genuen Lizarran, eta behar zen bezala hartu genuen notizia: tratuetako salerosketan aterako sosak, egun hartako otordu ongi hornituaren hondarrekin joan izanen ziren Ega behei-

ti, hurrengo primaberan harrapatuko genituen arrainen gizengarri.

Goizaldeko ordu ttikietan, gazteak, batere hotzik sumatu gabe, kantari eta kortejatze lanean ari ziren bitartean, zaharrenak suaren arrimura solastu ziren, ezkontza eguna seinalatzeko. Urtearen azkeneko egunean esposatuko ginen, abenduaren hogeita hamaikan.

San Migel eliza inoiz baino handiagoa iruditu zitzaidan, edo nire burua sekula baino ttikiagoa. Ez dakit. Nahiz eta negu gorria izan, ez zen elur urtea suertatu, eta etorri behar zuten jendaki guziak tenorez ailegatu ziren. Egun garbia atera zuen eta apenas zebilen haizerik, baina eguzkiak ez zuen batere berotzen eta xulo guziak ongi tapatu behar ziren, abenduko hotz isil hura hezurretaraino ez sartzeko. Paio begiluze batzuk ere ikusi nituen, xelataka ate ondoan, ijitoen arteko ezkontza hura ikusteko desiotan.

Don Estebanen boz sakona sakonago aditzen zen, baina kosta zitzaidan ederki erantzutea erakutsia zidatena, galderak egin zizkidanean. Be-

harrik Anjelitak ukondoarekin saihetsean jotzen ninduen, behar zen aldiro, eta disimuluan. Orduan bai bainintzen ni elizako santu hotza!

Etxeko atarian edukitzen genituen karroa eta zamariak kanpora atera eta dena garbi-garbia utzia zuten emakumeek. Mahaiak errelduan, bata bertzearen ondoan, eta haien gainean, denak estaltzen zituela, mantel zuri-gorria. Ruiztarren seme gazteenak metalezko bi ontzi utzi zizkigun, fabrika berotzeko ibiltzen zituztenak. Haien barrenean ikatzarekin sua egin eta ate ondoan paratu genituen. Primeran berotu ziguten bazkaritarako sala berezia.

Nire buruak buila bertzerik ez zuen aditzen, mahaiburu batean Anjelitaren ondoan jarrarazi nindutenean. Soineko beltz distiratsua zuen, ongi lisatua eta goitituak iduri zuten bularrei itsatsia bezala, begiek ere dir-dir egiten ziotela. Nireen ispilu, segur aski, erredura fin bat sumatzen bainuen haietan, ardo ttanttarik probatu gabea banintzen ere (ezin!), bertze gainerako guziak ez bezala.

Bazkariko kardoa, zerrikumea edo ardi zaharra, baita Monikaren etxean prestaturiko pastela

ere, Lizarrako gozogile hoberenaren haretxenean alegia, aipatzea komeni da. Denak pasatzen ikusi bainituen, nire begien aitzinean, zeinek baino zeinek itxura hobea, nik pixar bat bertzerik jan ez banuen ere. Estomakan zerbaitek korapiloa egina zidan, eta alferrik zen zintzurretik beheiti deus pasarazten saiatzea ere. Jendea gustura ikusten nuen, umore onean, eta pixkanpixkan joan nintzen nire onera etortzen eta korapiloa laxatzen.

Arratserako berriz ere nirera ekarria nuen apetitoa, eta lehen galdurikoak berdintzen hasi nintzen. Bertzeek igualtsu segitzen zuten, eta zaharrari akabaila bezala eman genion hasmenta urte berriari, jan-edanean, kantari eta dantzan, Migeltzok eta Ebaristok (a ze artista parea!) gitarra eta filarmonika jotzen zituztelarik.

Etxekoak agortu genituenean, lehengusuek- eta ekarri zituztenekin hasi ginen: Barrankako txorizo-lukainkak, Ameskoako gasna, Larragako esparrago-potoak, Villatuertako oilaskoak... eta, beti ere, Arronizko mol[8] gorriari ematen geniola. Multzo handia bakantzen joan zen guttika-gutti-

ka, logalea eta nekea gorputzari gailendu ahala, baina batzuek eguna ongi argitu arte segitu genuen (ez nintzen ohartu noiz joan zitzaidan Anjelita, eta ni ohatzera orduko bera jaikia zen, atseden eta gero).

Egun bakarra ez zitzaigun aski iruditu, ez kanpokoei ez etxekoei. Eta nola aunitz ekarri baitzuten eta ez zen deusetik falta, bigarren eta hirugarren egunean ere igualtsu ibili ginen. Ni ez nintzen dantzazale, eta jarrita ematen nituen orduak, eskuak jotzen, musikarien arrimuan. Batere korapilo edo zimikorik ez nuen sumatzen, ez estomakan ez inon, baina hitza ez zitzaidan aisa ateratzen. Pozak kanka jo banindu bezala nengoen: zernahi eta nornahiri irri.

Bortz egun eta bortz gau joan ziren horrela, eroaldian eta destenore totalean. Seigarren egunerako ordea zerbait aldatu zela konturatu nintzen. Aspertu egiten nintzen denari eta denei begira, eta begia Anjelitari ematen nion bakarrik. Berak ere niri begiratzen zidan, eta ilbeltzaren bortzeko arrats hartan, «Aski duk!» erranez bezala, ohatzera joateko «Goazen primo» erran zidanean, otxan-otxan segitu nion, inori kasurik

egin gabe, mundu osoan bera eta ni bakarrik bageunde bezala.

Aipatzen ez direnak aparte, loarekin eta atseden beharrarekin genituen zor guziak kitatu genituenean iratzarri ginen, eguzkiak beheiti aldera hasia izan behar zuen orduan. Altxa, jauntzi eta elkarrekin joan ginen sukaldera. Han ziren aita, ama eta anai-arreba sail bat. Denek burua gure aldera egina zutela, hantxe, sukalde erdian gu biok zutik, irri egin, Anjelitari begiratu eta solasa berriz ere banuela ohartu nintzen, honela atera baitzitzaidan barren-barrenetik: «Begira ze panpina ederra ekarri didaten erregeek!».

AMUARRAINA ETA AINGIRA

Besapean ogi egin berri bat zeramala atera zen okindegitik. Goizero bezala, elur hautsa bekainetan, gau hartan ere ogirin ekaitza jasan zuela seinale. Gorputz barreneko bere xulo eta bidaxka guziak imajinatu zituen ale xuriz beteak. Sudurrak hustu edo hertzeak libratzeko desiotan egoten zen halakoetan, bere barrenera baimenik gabe sartu zirenak nola kanporatzen zituen sentitzeko. Txistuka hasi zen San Pedroko karriketan barna, soinuak laguntzen baitzion bere baitara sartzen. Polliki-polliki kartzelako zubiraino ailegatu eta han pixka bat gelditu zen. Begiak paseiatan ibili ziren euren aldetik. Egako ur uherretan Ameskoa aldean izandako euriketaren berri irakurtzen ahal zen. Bazterreko hurritzaren lore beldurtiek buruz aitzin egiten zuten jauzi putzura, haizeak bulkaturik. Zeruko hodeiek aitaren aurpegia marraztu zioten, sudur azpiko bibote mehea eta guzi. Ordu pare bat lehenago ikusi

zuen aurpegi gogor bera. Maite zuenarekin ibiltzea galarazia zion aita zekenaren irudia.

Karrika Nagusiaren bazterreko estrata batean Mari *Moxorro* zegoen, paretaren kontra, izitua, makila probatua duen zakurraren modura. Baina Jabiertxo Sadabak ez zion «Mari *Moxorro*, emaidan motza» erranez eraso, gazte lotsagabe guziek bezala, eta berak ere ez «Ipurtzulotik sartuko diat hiri nik zorrotza!» moduko sainga-kontestarik eman. Andre xaharrak harritua begiratu zion okinaren semeari, burua zer animalia klasek jan ote zion pentsatzen zuela, eta bere moxkor kargarekin segitu zuen ttirriki-ttarraka, ezpainetarako ttantta emanen zion bihotz onekoaren bila. Esneketariak karrika erdian geldiarazi zuen mandoa eta oihuka hasi zen ailegatu zela anuntziatzen. Ateen atzetik emakumeak agertu ziren, botila eta marmita hutsak eskuan. Biharamuna besta eguna izaki eta ez zela Villatuertatik etorriko, gehiago hartzeko erraten zien saltzaile eroxkak. Sadabak burua alde batera bueltatu zuen esne jetzi berriaren usain fuertea ez sumatzeko, eta Pomesen ostatura sartu zen, bertze usain batzuen bila.

Ortzegun Santua baitzen, berak ere gurutzebidea egin behar zuela erabaki zuen. Nonbait eta nolabait isuri behar zuen aitak erein zion kolera. Nabarreria goiti jo zuen, ostatuz ostatu. Pomes, Prisko, Katxetas, Puentekoa, Aragonesa, Solano, Mokerikos, Garin... Kolpatua zuen bihotza. Aitaren hitz zorrotzek nabala bezala egin zioten ebaki. Ezin zela inola ere ibili Joseren alabarekin, hura bertze arraza zela, «Jitokumea duk!». Kasu egiten ez bazion ez zela gehiago sartuko etxera. Ukabila erakutsi zion, lepoko zaina ageri. Ttikitatik horrelaxeko ikasbidea emana zion. Obeditu edo, bertzela, egurra. Fraide etxetik etxera bueltan bidali zutenean bezala. Apez ustel haiek zaldikume harroa apalduko zutela, baina bai zera! Azkena, kanpaia jotzen harrapatu zutenekoa, ez dorrekoa, bistan dena. Orduan eman zizkion aitak nahita ere ahanzten ez direnak. Eskolarik nahi ez bazuen, etxean lanean. Panaderian eta gauaz. Halaxe ikasiko zuela. Makilarik gogorrena goiz hartan erakutsia zion, ordea, burutik kendu ezin zuen eme beltxaran harekin ibiltzea galaraziz. Nola edo hala ailegatu zen, hondarreko, Barandallaren Trinketeraino.

– Benga, Krixtottiki! Hau ez duk lo egiteko tokia!

Kolpean zutitu zuen burua, akuilua sartu baliote bezala.

– Kauendios! Etzakela berriz ere izen hori aipatu, muturra haustea nahi ez baduk!

Ardoz ongi hornitua, gorputzak pott egin eta, gehiago ezin, burua harri kozkor bat bezalaxe pausatua zuen txokoko mahaiaren gainean. Ostatuko nagusiak utzi zion lo zerrenda bat egiten, baina azkenean ernatzea erabaki zuen. Barandallak izen hura erratearekin, Sadabak horma sumatu zuen lepo atzetik bizkar aldera isurtzen. Aita oroitarazten zion zernahik barrenak nahasten zizkion. Krixto zuen izengoitia okin zaharrak, ore guttirekin ogi aunitz egiten zuelako, dudarik gabe. Tabernaria pixka bat ikaratu zen hasieran, baina segituan atera zuen bere armarik hoberena: tripatzarra muturraren parean plantatu zion Sadabari.

– Epa, gaxte! Mantsoxeago, e! Ez nikek beharritikan zintzilika paratu nahiko horrako kako horretan! Birikak bezala!

Jende franko zegoen ostatuan. Batzuk zutik, edanean, eta bertze batzuk mahaietan jarrita. Sadabak zimikoa sumatu zuen zorro aldean eta jateko zerbait galdetu zion nagusiari. Platera ilar gorriz betea atera zioten, zingar puska eder batekin. Hura garbitu arte ez zitzaion arraso urratu loaren armiarma-sarea. Mahai baten kontra etzinda zegoen xakur xuri-beltxari begia eman zionean, saingaka hasi zitzaion animalia. Begiak goiti egin zituen, nagusia nor ote zuen ikusteko. Aurelio zen. Okindegian berarekin batera lanean aritua zen portugesa. Aitzineko astean berean kanpora bidali zuen aitak, behin eta berriz kontra egiteko atrebentzia izan eta buruhauste sobera ematen ziolako. Anarkista zela erraten zuten. Harena ere berari kobratzeko erran zion Sadabak Barandallari.

– Kieto, Baranda! Ez diat sekula limosnarik behar izandu, are guttiago esplotatzailearen semearenik! –eta diru batzuk mahai gainean utzi zituen Aureliok.

– Hoaie porkulo hartzera! –bota zion gazteak, ardoak emana zion sasoiarekin.

Joko tokian bertze gisako besta zuten. Txitxan maingua bakarrik ari zen Abartzuzako bi gizajoren kontra. Apustu gogorra egina zutela ematen zuen. Txitxan aisa ari zen galtzen, eta Deierrikoen lagunak, bazterretik oihuka, sinetsiak zeuden sekulako negozioa egin behar zutela arratsalde hartan, diru mordoxka jokatu baitzuten euren herrikoen alde. Izanez ere, bi baten kontra, bakarra zena maingu, eta gainera sake guziak parejak egiten bazituen, ez zuten duda handirik izan Zubielkik egin zien eskaintza hartzeko. «Diru erraxa irabazi behar diguk» ari ziren erraten dirdirka euren begiak. Zubielki bera eta San Migel aldeko Txitxanen koadrilakoak, berriz, isil-isilik zeuden txoko batean. Haiek ere ez zuten galtzeko beldur handirik. Aste osoa pasatzen zuten ortzegunaren esperoan, merkatura etortzen ziren herritar inoxenteen kontura sakelak pixka bat berotzeko.

Trinketearen paretetan pilotaren soinua aditzen zela, bi gizon zimel agertu ziren atetik. Sadabaren ondora hurbildu ziren. Jose arrantzalea eta bere anaia Nikolas ziren. Sadaba zutitu egin zen. Arrantzalea boz ilunarekin hasi zen, akusa-

tuari kondenaren berri eman behar dion juezaren modura.

– Hire etxean izandu niok gaur goizean, biharko bazkarikoz amurri batzuk eramatera, eta zuen aitarekin solastu niok. Ez dik nahi hi gure alaba Terexarekin ibiltzea. Ez zaituzte elkarrekin inola ere ikusi nahi. Ni ere akort naizela erratera etorri niok.

Sadabak gizon hura jotzeko gogoa sentitu zuen. Mokoa hurbildu zion, oilarra bezala, eta ardo hatsa bota zion aurpegira. Nikolas gorra tartean sartu zen. Portugesak bere txokotik ez zien begirik kentzen. Ondoan zeudenak, pixka bat baztertuz, plaza egin zuten, erdian hiru gizonak bakarrik uzteko.

– Nere aitari bezala erranen dizut zuri ere: nahi dudanarekin eta nahi dudan moduan ibiliko naiz! Eta orain Terexarekin ibili nahi dut, berak ere nerekin ibili nahi duelakoz!

– Hori ez duk posible, inondik inora! Diferenteak gaituk, amurria eta aingira bezala! Ez hadi hurbildu ere egin gure alabarengana! Bertzela, ederki urrikituko zaik!

Sadabak maldizio batekin egin zuen tiro eta Nikolas alde batera bulkatu zuen zakar. Eskuek txuriak bilatu zituzten galtzetako sakeletan. Beso indartsu batzuek bizkarretik lotu zuten Sadaba. Aurelio portugesa zen.

– Ze ari haiz? Aestian ere erran diat porkulo hartzera joateko!

– Lasai, gazte! Hok ogi gogorra dituk edozeinentzat eta haginik gabe geldituko haiz nolanahi ausikika hasiz geroz.

Gaztea, ordea, temosoa izaki, bakean uzteko hasi zen erraten espantuka. Fuerteago lotu behar izan zuen, bere mahairaino arrastaka eramateko. Jose arrantzalea eta bere anaia kanpora joan ziren, eta mostradore inguruan berriz ere lehengo normalidadea hasi zen saretzen. Mahaietan musean ari zirenek jokoan segitu zuten, haiek ere zeinek kukurruku ozenago. Pilota tokian sua bizten hasia zen. Abartzuzakoen alde hemezortzi eta bat zena, hemeretzi eta hemezortzi bihurtu zen, Txitxanen alde. Hogeita hamar tantora. Aureliok oihu egin zion ostatuko nagusiari.

– Baranda, aterizak bertze pitxer bat! Nere kontura!

Ez zuen entenditzen zergatik zebilen adiskidetu nahizik pixka bat lehentxeago futaka aritu zitzaion anarkista hura, baina ongi hartu zuen gonbita. Ezin zituen burutik kendu ez bere aitaren hitzak ez Joserenak. Ezta Terexaren oroitzea ere. Edan, edan eta edan nahi zuen, kaskoan ardo-putzu bat egin arte. Aita, Jose eta Terexa bera ere bertan ito arte.

– A ze bi! Zuen zaharra eta arrantzalea! Amurria eta aingira! Zein ote da zein?

Ukondoa mahai gainean frinkatuz, Sadabak esku batekin kontzen zion buruari, bertzea basoa ezpainetaraino eramateko behar baitzuen. Portugesak maitasunaren gainean egin zion solas, eskarmentu handiko maisuak dakien moduan. Berak ere bildua zuen bere sufrikario partea. Portugalen ero eta eri ibili omen zen begi handiko neskatxa ezkondu baten ondotik.

– ‘Suzko menina’ erraten zioken jendeak. Hortik ateri kontuak, nolakoa ote zen! Berak ere maite niaken, baina ez zuken bere gizona abandonatzera atrebitu. Badakik, larrua ogi truk! Mi-

xerable xamar portatu zuken, baina ze nahi duk, gutaz ere zerbait erranen ditek! Orduan erabaki niken handikan aire joatea.

Pilota partiduaren akabailarekin sekulako kasaila aditu zen frontoian. Txitxanek irabazi zuen, jakina, baina Deierrikoek erraten zuten tranpa egin zuela. Zer tranpa, ordea! Mainguari aisa irabaziko ziotela pentsatu eta haiek erori artean! Ez eta baika, zorra pagarazi zieten arte. San Migeldarrek, dirua hartu zutenean, segituan alde egin zuten trinketetik, zer gerta ere.

Maitasunak kolpaturiko bi gizonak lepotik lotu ziren. Bi idi uztarri berean. Desio eta ezin hura ore ezin hobea zen adiskidetasuna mamitzeko. Ardoak ere bere lana egiten zuen, altxagarriarena edo, zeren biak harrotu egin baitziren, labe gorian ogia bezala. Aurelio Portugaleko kanta bat hasi zen kantatzen, «beijos ardentes, com que anciedade nós os colhemos nos labios teus...», herrimina eta maitemina nolazpait ere isurtzeko, eta Sadabak, ahal zuen bezala, lagundu egiten zion, «nosos-ko-le!... nos-la-bios-teeus!». Tarteka oihu egiten zuten, «Gora Josefinaren titi ederrak!!!», edo «Biba Bakunin!!!», al-

diro trago egiten zutela, eta ostatuko jendea gustura saltsa harekin, batzuk alde eta bertzeak kontra. Halako batean, portugesa serio jarri zen eta barren-barrenetik atera zitzaion irrintzia bota zuen, «Biba Tejerina eta Mayayo!!!», aitzineko urtean, diktaduraren kontra borrokatzera heldu zirela, muga pasatu ondotik Bidaso aldean garbitu zituzten bi anarkistez oroituz. Isiltasuna nagusitu zen ostatuan, baina sualo bat bertzerik ez zen izan, Kain erraten zioten xahar batek, boz urratuarekin, bere koplarik aldrebesena bota zuen arte.

Segur aski kulpa osoa ez zen bi maiteminduena izanen, baina kontua da trinketean guttitan bezalako animazioa jarri zela. Barandalla ohartu zen aziendak ezin zituela gobernatu, eta portugesak «Primo de Rivera!!!» garrasi egin ondotik, multzo handi batek, trumoia bezala, «Fuera!!!» erran zuenean, aski zela iruditu zitzaion eta kanpora bidali zuen bazterrak nahasi zituen pareja, «Fuera, bai! Orain fuera zuek biak! Haize freskoa hartzera!».

Ziraldoka abiatu ziren, karrikak markatzen zuen bidean goiti, ezker eta eskuineko paretei

musuka, xakurra segika zutela. Arimarik ere ez zebilen tenore hartan. Ilundu zuen, baina ilargi betea zegoen zeruan. Santiago plazaren erdian, iturriko paretaren gainera igan zen Sadaba. Ura-ren ispiluan ilargia oso-osorik ageri zen. «Ogi opil haundi bat ematen dik, zuri-zuria, labera sartu aitzinetik», erran zion portugesari, eta plausta! salto egin zuen, besoak zabal-zabal, irudi hura harrapatu nahiko balu bezala.

– Demonio belepitoa! –atera zitzaion Aurelio-ri–. Arraso erotu haiz edo ze?

Goitik beheitiraino txipa-txipa egina ikusi zuenean, portugesa bera ere daldaraka hasi zen, lagunaren hotza bere baitan sumatzen zuela, baina berak ere burua sartu zuen uretan. Ez zen kaskoa argitzeko manera txarra.

– Hi, Aurelio! Laguntzidak Terexaren etxera! Gibeleko atea joko diguk eta bera ateriko duk! –erran zion Sadabak.

– Ezta pentsatu ere! Nora joan nahi duk itxu-ra horrekin? Dena pelatua! Nik bazekiat zer egin. Badiat lagun bat, hor aitzintxeago bizi dena, eta han idortuko haiz kanpotik. Barrena eta bertze zerbait ere akaso gehigo bustiko diguk. Goazen!

Blas barberoarekin topo egin zuten, Josefinarenean ate joka, nerbioso. Xakurrak sainga egin zion, haren jaunzkera xelebrearekin izituxea. Ez zioten ireki nahi, eta berak gero eta fuerteago jotzen zuen. «Ez haiz ohartzen Aste Santua dela eta putek ere ez dutela lanikan egiten?», erran zion portugesak irriz. Gizon ttikiak marmarika alde egin zuen eta bi adiskideek euren bidean segitu zuten, karrika estu bateko atari bateraino. Atea irekia zegoen. Sartu eta bigarren pisuraino joan ziren.

Sadabak ez zuen lehendik ezagutzen atea ireki zien emakumea, baina berari ere sekulako besarkada eta musua eman zizkion, Aureliori eta xakurrari bezala. Berrogei urtetik goitikoa izanen zen, portugesaren gisara, baina mugimenduetan eta ezagun zuen sekulako bizitasuna zuela. Ezkerreko begia itxia zuen, «Hi bezalako mutil ederrei keinuka sobera aritzeagatik duk hori!», ttikitan lagunekin jostetan ari zela makila batekin zulatu ziotelako, baina ongi zuena hagitz handia zen, bertze edozeinen biren adinakoa. Milagros izena zuen, Mila, «Milagroak egiten dituelakoz paratu zioteken izen hori», eta umore zoragarria

isurtzen zuen egiten zituen gauza guzietan. Irria ezpainetan atxikia dutela jaiotzen diren horietakoa zela pentsatu zuen Sadabak.

– Biño, biño... ze ibili zate tenore honetan! Arrantzan? Aurelio, bandido hori, orain ere egin duk erokeriaren bat! Ez duk erremediorik!

Jauntziak zituenak erauntzi eta eskutrapu batekin gorputz osoa igurtzi ondotik, maindire latz bat eman zion Milak Sadabari. Arropa bustiak kanpoan hedatu zituen, ilargiaren argitan. Ilunduagatik epel xamar zegoen apirileko gau hartan, eta leihoa zabal-zabal utzi zuen, zeruko sorginaren hatsa etxean sartzera uzteko.

Egun berriko eguzkiaren argiak ernatu zuen Sadaba. Leihoa itxia zegoen, baina hotza sumatu zuen. Ohatze batean zegoen, biluzik eta gainean bertze berogarririk gabe, Aurelio eta Mila bezala. Emakumearen bizkarra zuen alde batean eta gizonaren hankak bertzean. Loaldi luze bat egina zuela adierazten zion gorputzaren ongiak. Ahoa idorra zuen. Poliki-poliki jaiki zen, komunera joateko. Xakurrak burua altxatu zuen bere txokoan.

Leihoa isilka ireki eta bere arropak hartu zituen. Pareko etxetik atso batek begitza beldurgarria bota zion. Ohatzean hilak bezala segitzen zuten bi gorputzei begira gelditu zen. Ederrak iruditu zitzaizkion. Soinurik egin gabe hasi zen jaunzten. San Juan elizako ezkilak joka hasi zirenean ikaratu zen, ez zuelako lagunak iratzartzea nahi.

Aureliok maldizioa bota zuen apez kanpaizalearen kontra. Maindirea bilatu zuen lurrean. Milaren kontra estutu eta bien gainetik bota zuen oihala, lotan segitzeko, Sadaba ate ondoan zutik zegoela konturatu ere egin gabe.

Kanpoan eguzkia hasia zen udaberriko sasoia erakusten, baina, hala ere, elurra ari zuen, negu gorrian bezala, okindegi barrenean bezala, zurzurien adarretatik. Haur batek, monagillo arropak soinean, elizara bidean, kandela luze bat ezpataren modura mugitzen zuen, erasotzaile haien kontra, eta Sadabak zigarro bat biztu zuen, azkeneko hogeita lau orduetan egin zuen bidea haren kean ikusteko. Ortziral Santuz jauntziriko senar-emazteek espantu batzuk egin zi-

tuzten, okin zintzoaren seme lotsagarriaren itxura zarpaila ikusita.

Etxeko atea bulkatu eta barrenera sartu zen. Jendearen solasa sumatu zuen salan. Bere logelara joateko dudatan egon zen, baina hankek marmarra sortzen zen lekura eraman zuten. Eskuarekin ateko kortina alde batera egin zuenean, soinua isildu zen. Mahai luzearen bueltan zeuden guziak begira jarri zitzaizkion: aita eta ama, anai-arrebak, amatxi xaharra, ilobak, izeba neskazaharra, osaba apeza. Serbitzen ari zen neskato batek zopa beroa utzi zuen mahaiaren gainean, bertzea geldirik gelditu zen, esparrago zuriz beteriko bandeja bat eta maiatzeko zizaz gainez egiten zuen bertze bat esku banatan. Orduantxe hasi behar zuten bazkaltzen. Kristalak distira egiten zuen harizko mantelaren gainean, baina zilarrak are gehiago. «Egun on!», atera zitzaion. Inork ez zion kontestarik eman. Aita zutitu egin zen, pitxerretako ardoa baino gorriago, eta amak sukaldera eraman zituen gainerako guziak. Amatxi protestaka joan zen, bere bastoi finaren gainean, eta haurrek burua behin eta be-

rriz jiratzen zuten, zer gertatzen zen ikusi nahizik.

– Hau al da tenorea etxera etortzeko! Hau al da manera pertsona agertzeko! –ondoraino hurbilduz, oihuka hasi zitzaion aita, gero eta fuerteago, lepoko zaina ageri–. Ongi iduritzen zaik, Aste Santuan, batere abisatu gabe, hor barna nolanahi ibiltzea! Non ibili haiz, e? Ardo usain horrekin!, non ibili haiz eta norekin? Demonio zerria!!! –atorra lepotik bere indar guziarekin hartzen ziola.

Denbora gelditu zen istant batez. Izaki guziak harri bihurtu ziren. Istorio hau bera ere hortxe amaitzen ahalko zen. Baina katu beltz batek ezin izan zion kontu ileak laztu zizkion indarrari, eta mahai azpitik atera eta sala alderik alde gurutzatu zuen. Tximista bezala. Trumoiaren aitzinetik.

– Nahi duzu jakin zertan aritu naizen? Larrutan! Larrua jotzen gizon batekin eta emakume batekin!

Justu-justuan hitz horiek errateko denbora izan zuen Jabiertxo Sadabak. Aitaren besoa disparatu egin zen, ezin tiranteago dagoen arkuaren soka uzten denean bezala, eta gizonaren es-

kuak zabal-zabal jo zuen mutilaren matelezurrean.

Sadabak hortzak estutu zituen eta, deus erran gabe, mahairaino joan zen. Mahaiburuan jarri zen, lasai-lasai. Basoa ardoz bete zuen goitiraino. Kopa altxatu zuen, aitari eta sukaldeko atetik begiratzen zioten guziei keinu egiteko. Gero, zintzurretik beheiti hustu zuen oso-osorik. Haurrek irriz begiratzen zioten. Serbilleta bat hartu, ezpainak garbitu eta lepoaren bueltan lotu zuen. Zutitu zen, aulkia gibelera bulkatu, mantela bi eskuekin hartu eta, inork deus egiteko astirik eman gabe, tira egin zuen bere indar guziarekin. «Mekaguen Puiko ama birjina!!! Biba komunismo libertarioa!!!», egin zuen oihu.

Osorik gelditu zen plater bakarrak lurrean dantzan segitzen zuen bitartean, kanpoko atea ireki eta alde egin zuen.

BOTA XOXA!

Igandea zen, eta Mines-en Kasinoan, gure Alkasoroko herrian bisitarik gehien hartzen zuen Madame Ines alargun bizkorrarenean, mugimendu berezia sumatzen zen. Izanez ere, haize hegoak beti izan baitu nahasgarri fama. Baita ilargi beteak ere. Eta igande hartan biak genituen uztarri berean.

Etxerako pereza betikoak geldiarazi ninduen, eta barrenera sartu nintzen. Jendeak ozenki egiten zuen solas, eta aisa husten zituen basoak, biharamuneko lan egin beharraz ahantzirik bezala. Mostradore ondoan zutik zeudenak saludatu eta haiekin erausian aritu nintzen puska batean.

Gure postura berean, marmolak eta paretak bat egiten zuten txokoan, bijilantziako guardia zibilak ikusi nituen (gaueko langileak lasai ibiltzen ahal ziren), Lainez bere bibote luzearekin eta ikustez bakarrik ezagutzen nuen bertze bat. Isilik, ontziak hustu eta zorroak bete. Lainezen mozkor gaiztoak ezagututa, bakarren batekin

okasioa bilatzen hastea ez zela harritzekoa izanen pentsatu nuen, eta hobe izanen zela haiengandik aparte xamar egotea.

Taldea bakantzen hasi eta txorakeriez aspertu ginenean, Luis lepotik hartu eta mahai batera baztertu ginen, konfiantzazko adiskideen gisara, neska-laguntzako espantuak elkarri kontatzeko ideian.

Oroitzen naiz nola hurbildu zitzaigun Matias xaharra, hainbertzetan bezala. Hamekagarren aldiz kontatu zigun Zubizabaletik beheiti izokina harrapatzeko Urrabiara *salto egin* zuenekoa. Kopa bete beharko genion, bakoitzak duen haretxekin ordaintzen baitu xurruparen gastua. Eta halaxe kitto ginela, alde egin zuen bertze batera.

Jendea irri-ajarika aditu genuen leiho pareko mahaian. Musean ari ziren Mines eta Garzia, Joxebeltx eta Mañueltxoren kontra. Pezeta bana utzia zuten tapetearen gainean. Mahaiaren bueltan, zutik, Sadaba, Kasinoan denbora hartan zegoen apopilo bakarra, eta bi baserritar, goialdekoak. Begi batzuk jokalarien kartetara, begi guziak Minesen kolko lasaira. Aunitz ageri baitzen,

eta harro-harroa gainera, kortejatzen ari den hegaztiaren paparoa iduri zuela.

Txiko hura ere irabazi (sekulako sasoia zuen egun hartan etxekoandreak) eta bere aniseta edateko, «Kieto denak!» agindu zuen emakumeak, besoa goiti eginez. Basoa hartu eta ezpainetik klik! barrenera hustu eta gero, begiak lore, eskuak bularretara eraman zituen.

– Dios! gaur bezalako gauetan bete-bete egiten zaizkidak iturri hok! –eta leihotik ageri zen zeruko argi zuria seinalatu zuen–. Txoratu egiten naik ilargi potolo horrek!

Irri egin genuen eroaldi harekin. Baita Sadabak ere, destenorez, deus konprenitu gabe. Uste dut inbidia pixka bat sentitu nuela ohartu nintzenean Minesek, denei begiratu ondotik, hari eman ziola begia, lotsagabe eta tentagarri. Bizkarraldea erdi agerian uzten zion soineko gorri berri hura jauntzirik eta zilar koloreko belarritako luze haiekin, hagitz ederra zegoen gau hartan.

Ez genion erlojuari kasurik egiten, baina hark ezarian-ezarian bere bidea egin egiten zuen, inoren zain gelditu gabe. Goialdetarrak etxe aldera abiatu eta ostatua pixkan-pixkan husten joan

zen, Ixteben morroiak ontziak biltzen zituen bitartean. Azkenean, ilargiak jotako Mines eta Minesek jota mahai haren inguruan geundenak bakarrik gelditu ginen. Eta, beti behar izaten baita norbait bazterrak izorratzeko, txapeloker barrenustel haiek.

Aisa irabazi zuten partida etxekoandre sorginak eta bere lagunak. Zeruko erregina eta izar guziak alde zituzten gau hartan. Halako kartak etortzen direnean irabaztea ez dela misterio izaten erran zidan Luisek. Halako sasoiak ez ote zituen karta onak ere harengana tiratzen erantzun nion nik.

Apustua irabazi baitzuten, emakumeak bularraldea aitzinerat egin zuen, mahai gainera, irri gaiztoa erakusten zuela. Begiekin keinu egin eta «Bota pezeta!» erran zien kontrarioei. Ez zituen ustekabean harrapatu. Ez zen lehenbiziko aldia. Ezagutzen zuten, eta pezetak utzi zizkioten keinuarekin seinalatu zien errekan, haiek ere kontent, bidenabar behatz punttekin sentitzen ahal baitzuten haragi guria.

Inguruan ginenoi begiratu zigun gero.

– Ze, zuek ez duzue bota behar ala? Bota xoxa Minesendako!

Irri egin genuen berriz (Sadabak Luis eta biok baino geroxeago) eta behatzak luzatu genituen, bi sosekoa utzi edo, bederen, uzteko itxura egiteko.

Ixteben agertu zen orduan, eskoba dantzatzen, eta bai guri bai oraindik ere mostradore ondoan segitzen zuten guardia zibilei etxera alde egiteko erran zigun, tente jarri eta nagusiaren papera eginez. Luisek zerbait erran zion, adarra jotzeko ideian, beti bezala, baina denak prestatzen hasi ginen handik joateko, eta orduan Lainez izeneko eltzetzu zimel hark handik inor ez mugitzeko agindu zuen. Serio, hura ez zen teatrorik egiten ari. Berak ere utzi nahi zuela txanpona Minesen kutxa itxi baino lehen.

Denak isilik geundela, hurbildu zen eta, sakelan bilatu eta gero, begiak soraio, eskua kolkora luzatu zion, guk egin bezala, baina gero gibelera ekarri gabe.

Minesen zintzurretik garrasi bat atera zen.

– Urde alu putakumea! Kentzak atzapar zikin hori nere gainetikan!

Zimikoa egiten zion, eta ez kentzen eskua, Minesek besoan jo eta joz azkenean erretirarazi zion arte.

Negarrez hasi zen, titiak eta aurpegia beso-eskuekin tapatzen zituela.

– Erotu haiz edo ze!

Denak mutu gelditu ginen bi gizon armatuei begira. Lainezek, irri zuri harroa agerian, bertze kopa bat ateratzeko eskatu zion Ixtebeni.

Sadaba ondo-ondora joan zitzaion.

– ¡Eres un cabrón! ¡Paga lo que debes, pídele perdón a Minés y lárgate de aquí echando hostias!

– ¿Tú qué pintas aquí? ¡Cacho pelao! –bota zion eltzetzuak, mozkor boz zakarrarekin.

Ez erantzun eta, pentsatzeko astirik eman gabe, bizardun ausartak besoa hartu eta bizkar aldera bihurritu zion.

– ¡He dicho que a la puta calle!

Lainez, aurpegia gorri eta gorputza alde batera makurtua, pistola zintzilik zuela, maldizioka eta erronda-lagunari laguntza eskatzen hasi zen. Baina ordurako gainerakoek ere erabakia genuen noren alde egin, eta, Sadabaren ondoan

baikinen, Lainezen konpañero uniformatuak ikusi zuen hobe zutela handik alde egin, *zerbitzu-orduetan* inolako ezbeharrik jasan gabe.

Sadabak bulkaka eraman zuen guardia zibila ateraino, gibelera pauso bakar bat ere ez, eta kanpoko marra pasarazi arte ez zion besoa libre utzi. Gero, bi gizonak elkarri begira gelditu ziren, bat barrenetik eta bertzea kanpotik. Hitzik erran gabe, guardia zibilak joan egin ziren.

Minesek eskerrak eman zizkigun, baina oharTu ginen nahigabe hark mindu ziola gau hartan ilargi beteari zurrupaturiko esne gozoa, eta bakoitza bere kabiara joatea erabaki genuen. Sadaba bere gelara eta bertzeok geure etxeetara. Binaka, elkarri lagun egiten, ez betiko bidetik, eta ez sobera lasai, ez baikinen batere fidatzen eltzetzu zerri haiek ez ote ziguten alukeriaren bat eginen.

Egunez izaniko hegoaren partez iparra sartzen hasia zen, eta ilargiari goibelek tarteka bizarra jaunzten zioten. Noizbait ere ailegatu ginen etxera ustekabe gaiztorik gabe.

Gauak marka berezia utzi zuen udazken hartan. Bagenuen beldurra Sadabaren bila joanen

ote ziren kuarteleko bizilagunak, baina ez, bakean utzi zuten. Nago ez ote zien fabrikako nagusiak hura ez ukitzeko erran. Hango ofizinetan ari baitzen herrira etorri zenetik, eta nahiz errebelde itxura hura izan (bere bizar beltzarekin eta), nola langile fina zen, injineru jaunak bere ondoan eduki nahiko zuen.

Gurekin juntatzen hasi zen. Luis eta bion ondora etortzen zitzaigun, Kasinora bisita egiten genuen aldiro. Euskaraz egunetik egunera gero eta gehiago konprenitzen zuen, eta hobe bera bertan baldin bazen haren kontrakorik ez erratea, badaezpada ere. Igandeetan elkarrekin joaten ginen usotara, mendian goiti, Baldrunera edo Alasetara, eta bidenabar onddo batzuk biltzea ere gustatzen zitzaigun, gero Minesenean berendu-afaria egiteko.

Kontatu zigun Lizarra aldetik etorria zela. Orduan noizbait aditu izatetik doi-doi ezagutzen genuen parajea zen hura, gerora ikasiko genuen hango berri gehiago. Ez zigun, ordea, horretatik aparteko deus erraten bere lehengo bizimoduaz. Ez nola bizitu zen, ez norekin, ez zergatik alde egin zuen. Ez genekien familiarekin haserretu

ote zen edo justiziari iheska ote zebilen. Bertze aldetik, amodiozko desengainuren bat izan baldin bazuen, bolada hartan apalduxea izanen zuen segur aski bere oinazea, Minesenean apopilo berezia baitzen. Eta Mines bera ere ez lehen bezain alargun.

Kuarteleko guardia zibilak ez ziren Kasinora sartzen. Ezta nahi ere guk. Eta gaiztoago hasi ziren, gehienbat ibaitarrekin. Gartzineko Linok, gurean buru hark egiten baitzuen, gaueko lana gelditu beharko genuela eman zuen ordena. Atseden hartzeko tenorea. Ez ginen sobera kezkatu halere. Bagenekien seguru ez zuela luzaro iraunen. Guretzat kalte baldin bazen, haiek gehiago galtzen zuten hala.

Hori etorri zen kanposantuko istorioaren ondotik.

Izanez ere, azienda batzuekin Urrabia pasa behar genuen aldetik aldera, beti bezala presa azpitik, ur ttikia den Ubelako horretan. Zortzigarren mugarrian hogei bat buru hartu eta horrat ailegatu ginenean, hantxe izaki guardia zibilak, geldi-geldirik, kanposantuko paretaren kontra, zigarroa erretzen patxada ederrean, alde egite-

ko inolako presarik gabe. Denbora pasa eta eltzetzuak ez mugitzen handik. Aziendak nerbioso eta gizonak are nerbiosoago. Zerbait egin beharko zen haiek handik bidaltzeko. Orduan, Linori gogoratu zitzaion kanposantu barrenera sartzea. Gogoratu eta halaxe egin. Sartu zen, barrenetik pareta gainera igan eta handik, ziri batekin, bati zapelokerra kendu burutik! Haien lasterrak! Kuarteleraino burua bueltatu gabe, tximista baino agudoago!

Gustura egin genuen irri kanposantukoaren kontura. Eta gero, bakazioaldia. Sos guttixeago sakelan, baina bizimodu lasaixeagoa. Eguna laburtzen joaki zen, eta etxeko lan pizarrak egiten genituenean Minesenera joaten ginen. Sadabarekin topo egin eta mus partidak berandu arte luzatzen ziren. Mines guttika-guttika ari zen lehen ezagutzen genuenaren trazak berriz ere hartzen, bixkortzen, oraindik «Bota xoxa!» haietarako behar adinako umorerik ez bazuen ere.

Horrela, ia sumakabean ailegatu zitzaigun lertxunak pasa ondotik isats-txuriek ekartzen duten berria, alegia, neguko hotza gurean genuelakoa.

Su bajuaren ondora hurbildu, egurrez ongi hornitu, gaztaina ausarki jan eta etxeko sagardoari merezi zuen estimazioa egin. Eta eguberrietako lege zaharrak kunplitu. Sekula ez bezala, urte hartan Olentzero plaza erdian erretzea erabaki genuen, herrian nabari zen giro nahasia nola edo hala kasatuko ote genuen.

Egun batzuk geroxeago, uste horretan berean prestatu ginen urte zaharrari despedidako ostikoa eta berriari ongi etorri emateko. Koadrila bildu, zahatoa bizkarrean hartu eta atez ate Diostesalbekoak kantatzen ibili ginen, Luis koplari genuela «Juntaturikan etorri gara, konpainia bat fidela; Agur itxeko jende nobleak! Gabon Jainkoak dizuela!», eta Sadaba ere lagun, Minesen senarrarena zen brusa soinean jauntzita.

Gaueko azkeneko kopla Sadabak berak bota zuen, Kasino barrenean, zorroan ardo karga dexentea eta Luisek belarrira hitzez hitz erraten ziona errepikatuz, etxekoandrea pare-parean zuela «Gabon itxeko andre txarmanta!, gabon bihotzeko Mines! Guttixko maite gaituzulakoz, gaude bihotzeko minez!».

Ez genuen hagitzez gauza gehiagotarako astirik izan. Bijilantziakoak sartu (sekulako ikararia eman ziguten, hiru hilabete agertu gabe pasa eta gero!) eta ostatua segituan ixteko ordena eman zuten. Ezagun zuten erreak zeudela. Ezin eraman gure lagunarte zoragarri hura. Ez ziguten bertan elkarrekin afaltzen ere utzi. Iruñetik heldu zen agindua omen.

Sadabaren kopeta belzten ikusi nuenean bere gelara eraman nuen, zer gerta ere. Urtea ongi hasi behar genuen nola edo hala. Mines ere etorri zitzaion kontsolatzera. Afari berezia Errege bezperan egiteko gelditu ginen.

Ilbeltzaren lauan, Errege bezperaren aitzineko eguneko arratsaldean, fabrikatik atera eta etxera etorri zitzaidan Sadaba. Pixka bat harritu nintzen, ez baitzen normala berak tenore hartan bisita egitea. Zer nahi ote zuen? Ezbeharren bat gertatu ote zitzaion Minesi? Hotz egiten zuen, baina kanpora aterarazi ninduen, ez zuen nahi etxekoek aditzea kontatu nahi zidana.

Izokin bat harrapatu behar genuela! Noizbait ere kontatua bainion nola gure aita arrantzale ona zen, pertolarekin eta zalagardarekin ibiltzen zela gauaz, eta nik ere tarteka pixka bat laguntzen niola.

Zertarako ibili ote nintzen ni neure burua famatzen! Nerone nengoen hitzaren amuan harrapatua!

Urrabia ez uher, baina ur hotzez ongi hornitua, eltzetzuak oraindik ere jenio txar xamarrean bazter guzietan usainka eta, batez ere, ilargi betea! Bai, goibelen artean sartu-ateraka zebilen ilargi biribila genuen orduko hartan ere! Hiru kontu horiek etorri zitzaizkidan bat-batean burura, eta halaxe bota nizkion, ea burutik kentzen ote nion ideia hura. Ez nuen arriskutan sartzeko gogo handirik.

Ez zuen deusetarako balio izan. Urtezaharreko tripako mina ez zitzaion pasa, eta opari egin nahi zion gure Mines bihotzekoari, Errege bezperan afari eder bat egiteko.

Nik baino indar handiagoa zuen temoso hark, eta amore eman behar izan nion azkenean. Bederatzietan ur bazterrera agertzeko erran nion,

nik eramanen nituela behar ziren guziak, eta kasu emateko inork ondotik segi ez ziezaion.

Gaueko bertze lanak bezalaxe, hura ere utzixea genuen bolada hartan, baina aitak gustukoa baitzuen, ibaiari begira orduak eta orduak pasatzen zituen, eta errana zidan nontsu sumatu zuen berriki izokinaren mugimendua. Gauez paratu beharko genuen sarea eta biharamun goizean bildu. Ez zen segurua baina agian zerbait bilduko genuen.

Ni joan orduko, hantxe nuen bera esperoan. Kontent ematen zuen. Maiteminduaren poxa. Hala iruditu zitzaidan niri. Hark ez zuen ez hotzik sumatzen ez arriskurik usaintzen. Ni ez nengoen arraso lasai.

Arbola artean gordeka, presaren azpiko putzutik beheitixeago, ibaia zabaltzen zen tokira joan ginen. Han bazen pertola paratzeko moduko ur ttikiko arrainbidea. Alde guzietara begiratu eta, ilargia estalia gelditu zen momentu batean, uretara sartu nintzen neure botatzarrekin, sarea paratzera. Sadaba ur bazterrean gelditu zen, haltz baten gibelean, guardian. Arbola harexeri

lotuak zeuden toki hartan berean ibaitar batzuen xalantak.

Lana eginxea nuelarik, berriz ere argitu zen zerua. Saiatu nintzen ahalik eta agudoena lanak akabatzen. Egunaz bezain argi zegoen, eta edozeinek ikusten ahal ninduen modu hartan.

Orduan, bertze aldeko sahats batzuen artean metalaren distira ikusi zuen Sadabak.

– Kasu! Eltzetzuak! –egin zidan oihu.

Neure burua uretara bota nuen, xalanten artera, Lainez putakumeak (huraxe behar zuen, nahitaez!, nor bertzela?) bere fusila husten zuen bitartean. Beren gordelekuan nonbait lo ziren piro batzuk lasterka atera ziren, ikaraturik. Fusilaren danbada izugarriak eta balek xalanten oholetan jotzean edo uretan sartzean egiten zuten soinua aditu nituen. Herriko jende guzia iratzarriko zen musika madarikatu harekin. Etxean ere kezkatuko ziren, nire ohatzea hutsik ikusten bazuten. Sadabak txoil uste zuen jo nindutela. Oker zegoen ordea.

Errege bezperako afaltzeko tenorean, Ixteben bakarrik gelditu zen Kasinoko ostatuan serbitzen. Sadaba, Luis eta hirurok (honako honek Urrabian bilduriko mukia eta eztula dexente!) goiti igan ginen, sukalde ondoko sala ttikira. Segituan atera zen Mines bere gelatik, soineko gorria eta zilarrezko belarritako luzeak, sekula baino ederrago.

Mahaira jarri eta gero, basoak Errioxako ardo beltzez bete eta topa egin ondotik, labetik atera zigun egun hartako jaki berezia: Alkasoroko piro autentikoa!, saihetsean *ehiztariak* egindako balazko tiroaren zulo perfektua agerian zuela.

TXOKOLATEZKO DINAMITA

Etxera bidean, automobil bat agertu zen Irun aldetik. Leihoa beheiti egina, gazte batzuek oihu egiten zuten, «Viva la República!», bandera gorria erakusten zutela. Harrituta, haiei begira gelditu ginen. Plazan itzali zuten motorra, ostatuko atean. Lau lagun ziren eta ez zituzten apezak maite. Don Fermin sotana altxa eta etxeko eskaileretan goiti joan zen itoka, haietako batek pistolarekin airera tiro egin zuenean. «Alde hemendikan, bele zikin hori!», erran zion, eta ostatutik atera zirenak irri-ajarika, basoa eskuan. Gazteek segitzen zuten oihuka, «Erredio!, Errepublika defenditu behar dugula! Mueran los fascistas!». Haurrak hurbildu ginen automobilera. Paperak partitzen hasi ziren eta guri Elgorriaga markako txokolatea ematen. Etxean errana zidaten arrotzari deus ez hartzeko. Buzo urdin bat ezagutu nuen, eta haren barrenean zegoen Bordako Balentinek oihu egin zidan, «Hator Marikarmen!, hunek ez din kalterik eginen». Fabrika

handian ari zen lanean, eta *La Voz de Guipúzcoa* ekartzen zuen besapean gure etxera iluntzero, solisonbra edatera etortzen zenean, bertzeak musean aritzen ziren bitartean. Calvo Sotelo hil zutela eta espantuka ibilia zen. Zer kaskasoil klase ote zen Sotelo hura? «Tozan txokoltea!», erran zidan, «Txokolate ona!», erran zuen irundarrak, «Txokolate gorria, Irundik ekarria!». Eta nik, hondarreko, hartu eta jan ere bai.

Txokolate madarikatua! Zeinen gaizki egin nuen lo! Ohatzean batera eta bertzera. Bero egiten zuen, hagitz bero handia. Karakolak urtzeko modukoa, aitatxik errana bere eguneroko buelta egitetik etorri zenean. Indiano-baitaren ondoko paretan egon zen, irratiko berriak aditzen, goizeko partea, leihoa itxi zioten arte. «Afrika kixkaltzen ari da!», erran zuen, «Agian ere ez da sua hotaraino ailegatuko!». «Nontsu da Afrika?», galdetu nion. Ez zidan kontestarik eman eta itzal bila abiatu zen, goiz aldea bere buruarekin pasatzeko, lurraren gaineko infernu haren koloreak nolakoak ote ziren pentsatzen. Amarentzat alferraren aitzakiak ziren nire tripako minak. Nahiko lan bazuen azienda guziak gobernatzen, heiako-

ak eta etxekoak. Baldeko esne berotik hiru botila bete eta saskian paratu zizkidan. «Aire! Mugitu hanka hoiek! Hiru buzker bota eta buelta orduko joanak hire min guziak!».

Zubia pasatzean Urrabiara begira gelditu nintzen. Ur ttikia ekarki zuen, baina amuarrain batzuk ikusten ahal ziren, eulitxa zozoren bat harrapatzeko esperantzan. Tximista urdin batek gurutzatu zuen ibaia aldetik aldera. Martin eder hura ere lanean ari zen, aski goiz. Edo, izialdurak joa, gorde nahizik ote zebilen?

Hankak daldaraka hasi zitzaizkidan karreterara ailegatu nintzenean. Dorre ondoko ezponda luzea gizonez betea zegoen, bururen buru. Mila gizon!, denak arrotz. Denak igual, uniforme iluna eta kapelu gorria. Denek fusil bana. Karrikan bertze inor ez, baina jendearen begiak imajinatu nituen herriko leiho itxi guzien gibelean. Nola pasako nintzen haien aitzinetik! Ikusi nindutenean irri egin zuten. Mila gizon irrika niri! Eta txistuka gero. Izerdiz tapatu nahi izan nuen gorputz osoko lotsa. Estomaka harri koxkorrez betea sumatu nuen. Saskia bertan utzi eta lasterka joan nintzen izeba Minesen etxera.

Sadaba eta biak besarkaturik harrapatu nituen. Ni sartzean bereizi egin ziren eta gizona baratzeko atetik joan zen, lapurrak bezala. Izebak painuloa pasa zuen begien azpitik, malkoak xukatzeko dudarik gabe. «Biño, biño... ze habila neska? Tripako minak? Tripako min ederrak denek hemen, kanpoko hori ikusita! Hoaie segituan etxera! Hoaie segituan, eta erran amari gerra hasi dela! Gerra hasi dela!».

Julian bidali zuten nik utziriko saskia bildu eta esnea partitzera. Anaia zaharrena baitzen. Espartzinak jauntzi eta harro-harro joan zen herrira, besta eguna balitz bezala. Bazkaltzeko tenorea bitarte ez zen bueltatu. Harroago, pakete bat zigarro atorrako sakelan. Gerra hasia zela, komunista eta elizak erretzen zituztenen kontra. Bordakoak eta aitzineko egunetan builaka ibili ziren bertze batzuk falta zirela herrian. Eskapo joan izan behar zirela Ibardinen barna. Hain balienteak baldin baziren, zergatik joanak ote ziren hain agudo. Pedro Lizasok erran ziola ea lagunduko ote zien, Iruñetik etorri ziren militarrek behar zutela bertako jendea, mendiko bideak

ongi ezagutzen zituena. Aitatxi mahaitik altxatu zen, deus erran gabe.

«Tripako min hoiek, bertze zerbaiten seinale ditun!», erran zidan amatxik. Ohatzean etzinda zegoen, eta nik bazkalondoan bisita egiten nion. Likor botila hartu eta, inork ikusi gabetanik, xurrupa hartzen zuen egunero, nik emanda. Sekretua gordetzen bainion, berari kontatu nion bezperako txokolatearena. «Txokolteak ez din kalterik egin, neska!, gizonak emana izanagatik! Tripako min hoiek, emakume egiteko haizelakoz ditun!».

Teofilok musika ematen zien sari Zelaiko haritz zaharrei, eskaintzen zioten gerizaren truke, Parisen erosiriko bota elegante haiek hanketan eta bere akordeoia xuabe-xuabe jotzen, etxekoek siesta egiten zuten bitartean. Lesakako sanferminetara etorria zen, urtero bezala, deitzen baitzioten soinua jotzera joateko, eta, hango lana finiturik, gurean egun batzuk pasatu zituen. Maleta hantxe zuen, Irungo trena ez zelako etorri. Bere Ziburura ezin joan eta, afera konpontzen

zen arte, luzeago gelditu beharko zuen. Suerte pixka bat izanez gero, Santiago eguna gurekin pasatuko zuen. Hala, auzoko besta egunean ez genuen dantzarako musikarik faltako. Bere ondoan jarri nintzen. Kanta bat jo behar dut zu lokartzeko. Nik sortua, *Mundua arraso erotu zaigu* eman diot izena. Eta lo gelditu nintzen, burua bere sorbaldan, lepo luzeko bota haiei begira.

Tximista beldurgarri batek desafiozko keinua egin zuen zerutik eta, trumoia lehertu zelarik, iheslarien itzal biziak bat-batean gelditu egin ziren mugako bagadiaren erdian. Don Piok burua jiratu zuen Ibardingo bidean, Altzateko sozialisten etxeko liburu erreen keak erakusten zion etorkizunari erreparatzeko. «Mugitu beharko dinagu, Marikarmen, bertzela bustiko gaitun!», erran zidan belarrira ametsetako maitaleak. Beorlegi koronelaren mila gizonek Dorreko ezponda gainean tiro egin zuten batera, Gipuzkoa menean hartzera abiatzeko seinale. Bezperako txokolatea dinamita bezala lehertu zen nire baitan eta Afrikako sua hasi zitzaidan xilko azpiko nire tximeletatik ateratzen, izterretatik beheiti bi erreka mehar egiten zituela. «Ama, odola!», hasi

nintzen garrasika. Euria hasi zuen zakar, jautsi ahalean, eta Teofilok bere besoetan eraman nin-duen etxeraino.

HONTXA

Bide bazterrean gelditu eta pixa egiten hasi zen. Udako eguzkiak distira irasten zion ibaiaren azalari, haltzen soinekoari, belarraren berdeari eta trenbideko burniari. Hontxak ezkerreko eskuarekin kontzen zion zakilari eta ibai handiaren parean bera ere kontent zen, erreka sortzaile. Katua izan nahiko zuen, begiak erdi itxirik, bazkalondoko lo-kuluxka belar haren gainean etzinda gustura egiteko. Boz zakar batek iratzarri zuen, ustekabean. «¡Arriba las manos!».

Obeditu behar izan zuen eta galtzetan normalean baino arrasto zabalagoa gelditu zitzaion. «¿Qué hace usté ahí?». Hankak daldaraka, hitzik erran gabe, galtza bustiak erakutsi zizkien. Irri ero bat atera zitzaien, baina segituan berriz ere serio jarri ziren. «¿Quién es usté? ¿A qué grupo pertenece?». Solasa apal-apal utzi zuen erortzera: «Jose Gonzalo Agirre. Pero unos me xaman osaba y otros Gontxalo». Etxean hala erraten baikenion, ttikiek eta handiek diferente. «¡Dénos

eso que lleva a la espalda, sin hacer ninguna tontería!». Osabak largabista eman zien, bere zorroan sartua. «¿Qué es esto?», galdetu zioten. «Un telescopio». Tresnaren xoko guziak begiratzen zituzten bitartean, buru egiten zuenak kontu arrotz batzuk aipatu zizkion: «guerra, Africa, Franco, requeté, España, el-puente-de-Endarlaza, coronel-Beorlegi...». Berak ez zuen azkeneko galdera bertzerik entenditu, «¡Díganos usté el camino a Irún por monte!». Ikaratua, baina ekarki zuten itxurari erreparatu zien. Jaunzkerari, zapelari, oinetako botei... eta pixkan-pixkan lasaitzen joan zen. Bat-batean buruak eman zion gertatzen ari zen misterioaren erantzuna: ez zegoen dudarik, gizon haiek, hala jauntzirik eta eskopetak eskuan, teatro egiten ari ziren! Berari ere gustatzen zitzaion antzerki egitea! «¡Yo no sé!», erran zien, irri murritza zintzilik, konplize. Bera ere jostetan ari zela, alegia. Orduan gizon haiek haserre itxura egin zuten, hagitz ongi egin ere, zinetan ari balira bezala. «Si no nos dice usté el camino pa Irún, le llevaremos detenido y le juzgaremos por rojo revolucionario y por comunista! ¡Y por espía!».

Beorlegi koronelaren gizonek preso eraman zuten mendian goiti. «¡Pues te vienes con nosotros, por cojones!». Eta gure osabak, besoak goiti eta gorputza tente, militarren arauek eskatzen duten duintasun itxura egiten zuela: «Como ustedes quieran, ¡mi comandante!». Argimiro Ibirikuren taldearen eskutan zegoela jakinarazi zioten. Sarjentu gradua emana zioten, egin zituen azioen sari. «¡Cagüendios!, van a aprender pronto mi nombre en este pueblo, Argimiro, ¡el que no deja un rojo vivo!». Ez zekiten prisionero hura komunista, sozialista edo anarkista ote zen, baina garbi zuten ez zela jenero naturala. Paraje haietako jendea bazkalondoko siestan egoten zen tenore hartan, eta ez zen gisa hartara jaunzten. Harrapatu zuten sujetu hark militar arropak zituen, hagitz bereziak, hori bai, ez guardia zibil, ez karabinero, ez falanje eta ez, jakina, erreketete!, eta gainera largabista izugarri bat zeraman lepotik zintzilik. Zertarako arraio nahi ote zuen pertsonaje hark halako aparatua?

Alkasorora trenean ailegatu zen egunean ere guk galdera berbera egin genion geure buruari. Zer eskopeta klase ekarki ote zuen arrotz hark

bizkarrean. Eta zer gerratatik ihesi heldu ote zen, halako jaunzkerarekin. Geltokiko jefeak ikusi zuenean, ezpainetik txilibitua kendu gabe, soldaduen agurra egin zion bromatan. «¿A quién busca usté?», galdetu zion. «Querría xegar a Martinbaita, señor. Si vos fuera tan amable». Ferrobiarioak pentsatzeko keinua egin zuen, biboteko ileak behatzen artean bihurrituz. «No se preocupe, esos chavales le acompañarán», erran zion, Etxeberriko Joakin eta Gorrintxeko Pellori begira. «Ieup!, mutilak!, erakutsiozue jeneral honeri non den Martinbaita. Maleta garraio laguntzen badiozue, igual saria emanen dizue».

Irun aldera bueltan zihoan trena tunelean sartu zenean, neronek ikusi nituen maldaren goiko buruan agertzen. Baserri guzietako zakurrak saingaka hasi baitzitzaizkien, etxeko leihora atera nintzen, zer gertatzen zen ikustera. Handik ikusi nituen, Joakin eta Pello, maleta bana eskuan, izerdi patsetan, eta bera, burua eta gorputza tente, ezker-eskuin begiraka, hegal zabaleko zapela eta militar uniforme goititik-beheitirainokoa, bere uhalak eta guzi. Lepotik zintzilik ekarki zuenak niri ere eskopeta motzen bat ote zen

pentsarazi zidan. Gero ikasi genuen teleskopioa deitzen zen tramankulua zela eta urruneko gauzak ikusteko balio zuela. Hankak eta guzi bazituen. Lurrean paratu eta handik begiratzen genuen. Zer zen hura! Harekin Larun jo eta etxe ondoko aran arbola bezain hurbil ikusten zen! Harekin begiratzen genuen ilargian jenderik bizi ote zen edo gure ardiak zerrakura gainetik salto egin eta belartegitik atera ote ziren, eta herriko parrokiako erloju handiak zer ordu markatzen zuen! Berak beti eramaten zuen bizkarrean, baina batez ere hegaztiei begira egotea gustatzen zitzaion.

Gure etxean geldituko zen bizitzera. Hala eskatzen zion gure aitari bere anaia Albertok bidaltzen zion kartan. Izeba moja hil berriaren gelan paratu genuen. Gaixo hark atera gabe hainbertze urte pasa zituen gela berean. Moja izan nahi zuen, baina komentutik etxera bidali zuten bueltan. Ez zuela balio. Beti errezatzen eta errezatzen, leihotik begira.

Hantxe gustura, begien menera, gibeleko aldeko belar soroa, malda goxo bat egiten zuela, haurdunaren triparen gisara. Beheitiko partean

arbolak, usu-usu, haltzak, urritzak, akaziak... Urrabiarentzat itzal, hostoz beteak zeudenean, eta gorotz, haiek euri tantak bezala erortzen zirenean. Ikuspegi ezin ederragoa, kristal haietatik begiratzearekin gehiena gozatzen zen gizon etorri berriarendako.

Lehenbiziko gauean ikasi genuen zer zuen osaba Gontxalok maleta pisuenean, Joakinek erdi herrestaka ekarri zuen hartan. Denak lo ginela, soinu idor bat aditzen hasi ginen. Mahai baten gainean norbait makilarekin-edo joka ari zela ematen zuen. Aitatxi ez bertze guziak iratzarri gintuen. Amatxi protestan hasi zen bere ohatzean, aita eta ama jaiki ziren eta, hondarreko, Julian anaia, Elen ahizpa eta ni ere bai. Denak juntatu ginen pasilloan. Osabaren gelatik ateratzen ziren soinuak. Atearen ondora joan ginen. Ez zen argirik ikusten zirrituetatik, baina tak-tak-tak hark segitzen zuen gelditu gabe. Aitak oihu egitea erabaki zuen. Soinua isildu eta atea ireki zigun. Aitak zer ari zen galdetu zion eta osabak eskribitzeko makina erakutsi zion. Denak hurbildu ginen. Guk ez genuen egundaino halakorik ikusi. Justu-justuan bazela aditzea bagenuen,

baina bertzerik ez. Paper bat sartua zuen eta hantxe zentzurik gabeko letra eta numero pila bat. Harro erakutsi zigun. Karta bat idazten ari omen zen. Ilunpetan, argirik gabeko gau beltzean.

Beorlegiren gizonek ez zuten eskribitzeko makinaren berri. Hura jakin izatera, are duda ttikiagoa gure osabaren espiatasunaz. Bertan bi tiro botatzeko arrazoi bat gehiago. Bakarren batek ez zuen gogorik falta. «¿De qué grupo eres? ¿Quién te manda vigilar con el catalejo ése?», erraten zioten zakar eta bulkaka gizon haiek. Jenio biziko beltx batek, altueran ttikiena huraxe, bertzeek baino ezinegon larriagoa zuen. «¡Cagüenlavirgen, sargento! ¡Nos lo cepillamos y fuera! ¡Uno menos!». Villatuertako bati hotzikarak jotzen zion garondotik ipurxokoraino, barrankes ttikiak ahoa irekitzen zuen aldiro. Bere herriaz oroitzen zen. Garia pikatzen behar zuen orduan, igitaia eskuan. Igitaiaren partez fusila. Gariaren zuztarra beharrean, gizon haren gerria. Zer ari zen han? Ezin izanen zion gizajo hari tiro egin. Kaka galtzetan! Estreinakoarekin guziei gauza bera gertatzen zitzaien. Hala erraten zien

Argimiro sarjentuak. Gero, denborarekin, jarriko ziren. «¡Igual igual que tirarle a un conejo!». Bero sapa harekin zainetako odola irakiten. Mendian goiti nora jakin gabe joaki zirela, bertze talde batekin egin zuten topo.

Haiek bazuten erakuslea. Pedro Lizaso, Dorreluzeko seme zaharrena, haiekin batera heldu zen, haiek bezala erreketez jauntzia. Gure etxera maiz etortzen zen. Bere ama eta gure amatxi, lehengusuak. Osaba Gontxalo ikusi zuenean harritu egin zen, eta fusilatu gogo zutela aditu zuenean pixka bat ikaratu ere bai. Hari esker libre utzi zutenean, etxera etorri zen lasterka, teleskopioa lepotik zintzilik. Ordukotz ohartua zen ez zirela teatroa egiten ari. Primeran oroitzen naiz egun hartaz. Trumoia lehertu zen arratsalde partean, beroaren gorrotoz, eta niri lehenbiziko aldiz etorri zitzaidan odola. Bera bezain izitua nengoen ni. Ez bata ez bertzea ez ginen aste osoan etxetik atera. Beharrik Teofilo zegoen gure etxean, Irungo trena ez zebilelako, Ziburuko bere etxera ezin joan Sanferminetatik bueltan, eta bere akordeoia eta umore paregabeare-

kin ahantzarazi zizkigun osaba eta bioi gure pena guziak.

Aitak galarazi zion gauaz makinaz eskribitzea. Kanpotik ere aditzen ahal baitzen, eta ez zuen nahi berriz ere militarren bisitarik hartu. Kartarik gabe geldituko zen Belinda, itsasoaren bertze aldean utzia zuen bere maitea, harentzat baitziren idazten zituen guziak. Bular handiak omen zituen, «como dos lunas llenas». Ostatuan, Zeferinok adarra jotzen zion nahi adina. «Es muy linda tu Belinda? Egon haiz egundaino haren gainean etzinda?». Astean behin jausten zen herrira, papera, kartazala eta selloa erostera. Ez genion karta botatzen sekula ikusi, ordea. Bera desagertu eta gero aurkitu genituen denak, usategiko txoko batean. Uso mezulariak aspalditik greba mugagabean zeudela ez jakiki berak.

Baina gizona beti gizon, eta osaba ere berezi xamarra baina halaxekoa. «Altso ta maltso, denak igualtso!», erraten zuen gure amak. Segituan harrapatu zuen, Belindarekin ezin eta, bere ametsak beteko zituen bertze norbait. Bordako Maripaz sartu zitzaion begitik.

Gizona preso eraman baitzioten Iruñera, Beratik Alkasoroko amaren baserrira etorri berria zen, alaba ttikiarekin. Belinda deitzen hasi zitzaion. Hari ere kontatu zion gizon batzuek hartu eta mendira eraman zutela eta hil nahi izan zutela, ez zizkielako erran nahi berak zekizkien sekretu guziak. Ez zielako kontatu non egiten zuten kabia ttorttolek edo zer ordutan ernatzen zen martin arrantzalea, ez eta non biltzen zituen harri kristalezko zoragarri haiek, egun batean hari, berarekin esposatzen baldin bazen, emanen zizkion diamante haiek.

Bolada luze xamarra eman zuen Maripazen ondotik. Beharrik haren umore onari, «Ni ez naizela Melinda, ni Maripaz naizela, demonio eroa!». Ilargi beteko gau epel batean leiho parera agertu zitzaion larrugorritan. «Hola Belinda, ¿oíste las ranas?», galdetu zion. Emakumearen anaiak aizkora paratu zion lepoan, hura moztea nahi ez bazuen handik joateko. Maripazi soberaxko iruditu zitzaion leihora agertze hura. Handiagorik ez zuen biztu, guregatik, baina osabari adierazi behar izan genion bakean utzi beharko zuela emakume hura, gure etxean segitu nahi

baldin bazuen. Berria agudo zabaldu zen Alkasoron barna, halere. Zeferinok orduan bota zuen lehenbiziko aldiz: «Gontxa-lo? Aski erne zegoken hau! Gauaz ibiltzen diren hontzak bezala! Gontxa-lo! Gure Hon-txa!». Baina hortxe gelditu zen kontu guzia.

Ilargi betearekin gertatzen zitzaion arropa guziak sobrante izate hori. Gelako leihoa irekitzen zuen zabal-zabal eta teleskopioarekin begiratzen zion, begiak zabalago. «¡Cuánta nieve!», erraten zuen txoraturik, «¡Qué calor! ¡Me abraso!», eta arropa eraunzten hasten zen, deus gabe gelditu arte. Batzuetan kanpora ateratzen zen, isil-isilik, eta paseatan ibiltzen zen, gauenaren hegada eroari ezin segituz edo bera bezalako bertze hontzekin solasean. Gustatzen zitzaion Urrabiara joatea, presa azpiko putzutik beheitixeago, ibaia zabaltzen zen tokira. Han bazen harri-zelai bat, urak denboraren poderioz eginiko lana. Uharri leun haien artean bilaka gustura aritzen zen. Ilargiaren argitan kristalezko politenak bilatzen zituen. Belindarendako bere diamanteak. Leku hartan zegoen, hain zuzen ere, urte pare bat lehenago, tiroak izan ziren ilbeltzeko

gau hartan. Kontrabandoko konturen bat, segur aski, tartean Uraldeko Anjel eta Sadaba ibilki baitziren. Herri osoa iratzarri zen eta osaba ikaratua etorri zen. Etxekoek orduan ikusi genuen biluzik lehenbiziko aldiz. Daldara batean zegoen, hotzak eta beldurrak.

Gerrak mugimendu handia ekarri zuen herrira, eta berri onik bakar bat ere ez. Eztandak eta tiroak noiznahi aditzen genituen eta bagenekien hegazti eta erbiekin batera bi hankako animaliek ere eskapo ibili behar zutela. Ospitaleko moja batek idazteko bere zaletasunari eskerrak irauten zuen bizirik, koaderno lodi bat betea zuen, *Infernua lurrean*. Berako Hargaitzeko harrobira kamioiak ailegatzen ziren: apez bat, fusilez armaturiko soldadu boluntarioak eta begiak bendatuak zituzten gizonak, eskuak bizkarraldean loturik, egunaren argia berriz ere ikusiko ez zutenak. Bortz-sei fusilek batera egiten zuten su. Herriko bestetako artifizialak lehertzean egiten zuten burrunba bera. Ondoko baserrietan zakurrek uluka ematen zuten gau osoa eta jendea erotzen zen animalien negar doinu hura jasan ezinik. Baserritarren gurdien gainean, behar lu-

keen belar edo iratzearen partez, denetik ikusten ahal zen: fusilak, ogiak, arropak, gizon hautsiak... Soldadu arrotzek atea jotzen zuten destenorean, jana, edana edo ohatzea eske. Bertzelakorik hartzen ere saiatzen ziren, baina guraso onek giltzapean gordetzen gintuzten neskatxa gazteak. Osaba Pauloren kartak ailegatu ziren frentetik, Somosierran bala batek betikotz isildu zuen arte. Iraileko ilunabar batean zerua gorritu zen arraso. Itsasoak gainez egin du odolez, erran zuen aitatxik, eta zerua haren ispilu! Txinguditik Urrabia goiti iheska heldu ziren hegaztiek ekarri ziguten notizia, irratian aditu baino lehen: Irun erretzen ari zen.

Hurrengo goizean izeba Mines etorri zitzaigun etxera negarrez, Sadaba bere ohatzean harrapatu zuten falanjistek. Uztailaren hemezortzian berean ihesi joana zen mugaren bertze aldera, baina hain denbora luzean elkar ikusi gabe ezin jasan eta hasia zen gau batzuetan etortzen izebarenera, elkarri penak arintzera. Norbaitek salatu eta Kaxernara eramana zuten preso. Izebari erran zioten Berako harrobira eramanen zutela arratsean. Fusilatuko zuten! Hilen zuten!

Aita eta aitatxi Lizasotarren etxera joan ziren, jendakiak baitziren, Sadaba libratzeko laguntza galdetzera, Pedro gaztea Alkasoroko erreketeen buru zela jakinda. «Asunto txarra!», erran zien, «Sadaba hori lehenago ixil-ixilikan ibiltzen zen, biño fabrikako hondarreko huelgan ederki erakutsi zuen gandorra! Anarkista gogorra! ¡Por-lo-menos-de-la-FAI! Harrapatu dutenean pistola eramaki zuen galtzetako sakelan. Bueno, harrapatu dutenean ez, ohatzean ari baitzen Minesekin! ¡Otra-que-tal-baila! Kontent egoten ahal da bera ez badute eraman! Gainera falanjistek hartu baldin badute, guk ezin dugu gauza haundirikan egin. Badakizue nor dabilen falanjistekin? Lainez guardia zibila! Zoazte, zoazte falanjistengana!».

Eta Kaxernara joan ziren, falanjistengana, gure etxeko bi gizonak, nahi ez bazuten ere, estomakan zimikoa eta lepo atzean berotasun bat, brasa su bajuan bezala. «¿Qué tienen contra este hombre? ¡Este hombre no ha hecho nada malo!». Deusetarako ez aitatxiren hitz zuzenak. «Harri koxkorra ditek hok bihotzaren partez!». Don Ferminengana joatea bakarrik falta zuten,

baina indarrik aski ez eta amak joan behar izan zuen. Joan baldin bazen joan zen, ongi lotsatua bueltatu ere bai. Ea zer galdetzen zion, ez ote zekien gizon hura nor zen, aber ez zen oroitzen nola ibili zen sanferminetako igande hartan, Lesakatik bueltan, arraso mozkortua eta espantuka, elizari su eman behar ziotela erraten.

Ilunabarrean, Julian anaia lasterka sartu zen etxera eta aditu nahi ez genuena erran zuen, Sadaba gau hartan berean eramanen zutela harrobira, aitzineko egunean muga aldean harrapatu zituzten bi etxalartarrekin batera. Lainezek berak ostatuan errana, muturra poliki berotu ondotik, harrokeriaz, bere trajean ezin kabituz.

Minesek arratsalde hartan egin zituen negarrak Urrabiara joan izatera, uholdea izanen zuten Endarlatsan. Ama eta Bordako Maripaz ondoan zituen, kontsolatu nahi eta ezin. Aita eta aitatxi desagertu ziren. Ezin jasan. Amatxi bere ohatzetik ezin zen altxatu. «Ekarran ttantta Marikarmen! Gizona fusilatu nahi dutela? Hik laguntzen badidan, nerone joanen naun iluntzean Hargaitzera». Ezin ordea. Nahita ere, ezin mugitu gaixoa. Osabaren gelara joan nintzen gero. Apenas

ateratzen zen kanpora bolada hartan. Leiho parean zegoen, teleskopiotik begira. Kabia bat joa zuen, bete-betean. «¡Es de billigarrua!», erran zidan, munduko bertze deusetaz ohartzen ez balitz bezala. Gau hartan ilargi betea izanen zen.

Izeba Mines gure etxean gelditu zen. Gainerako guziak lo zirelarik, paretaren bertze aldean aditzen genuen nola ari zen negarrez, ama haren ondoan, lagun egiten. Elen eta biek leihoa ireki genuen. Kanpoan den-dena isilik zegoen. Zerua izar, ilargi beteak argi-hautsa isurtzen zuen mendi arteko ibarrean. Alkasoroko karriketan, Urrabiaren arrimuan, argi batzuk ageri ziren. Urrunago, argi gehiago, Berako herria.

Kamioi motel baten gurpil pisuek sagarroi bat zanpatu zuten gupidarik gabe Hargaitzeko harrobian gelditu baino lehen. Ondoko baserriko zakurrak gaueroko sainga tristean hasi ziren, gaur-gaur-gaur!, gaurerebai!-gaurerebai! erranez bezala. Zakurretik zakurrera, etxetik etxera zabaldu zen berria, gurera ailegatu eta Xarpak ere berea jo baitzuen, ondoko baserrikoek adi zezaten. Txoferrak motorra isilarazi zuen. Zakurrak ere istant batez isildu zirenean, Urrabiaren

orroa aditu zen presako ur-jauzian. Ondoko aulkitik Lainez eta apeza jautsi ziren. Don Ferminen sotanari lustrea eman zion ilargiaren argiak. Gibeletik bortz atorra-urdin atera ziren. Hiru kondenatuak, eskuak burnietan preso, kolpeka jautsarazi zituzten, fusila akuilu. Pauso batzuk eman eta harmasako paretaren kontra paratu zituzten. Apeza hurbildu zitzaien, baina hirurek segituan bidali zuten. «Alde egizak hemendikan bele zerri hori!», bota zion Sadabak. Pixka bat baztertu eta burua beheiti egin zuen, errezatzen ari balitz bezalako postura faltsuan. Gero, bi soldaduren artean zapi bana paratu zieten begietan. Bortz gizonak errelduan jarri ziren, Lainezek tiro egiteko agindua noiz emanen ote zuen zain. Hontz baten ulua aditu zen harrizko paretaren goiko partean.

Lainezek begiak altxatu zituen, hegaztiaren mintzurua aditu zen lekura. Norbaitek zerbaitekin ispilua eginez bere begira zuzentzen zuen ilargiaren argia. Argi apala izanagatik itsutu egiten zuen eta ezin zuen ikusi nor zebilen goialde hartan, Kamaindegiko laminzuloaren atean. «¡Algún cabrón anda suelto por ahí arriba!». Mi-

litarrek ere goiti begiratu zutenean, Hontxak lurrean utzi zuen teleskopioa eta harrika hasi zen Lainez eta bere morroien kontra. «¡Faxita de mieeerda!», egin zien oihu. Orduan ikusi zuten justu-justuan, ilargiaren argitan, bere indar guziarekin botatzen zizkien kolore guzietako diamanteen artean. Larrugorritan zegoen. Kamioiaren atzean paratu ziren eta tiroka hasi ziren ero moduan.

Kargadoreak hustu eta fusilak gelditu zirenean, ez zen ezta zakurren sainga ere aditzen. Herri osoko bizidun guziak isilik, ez lo ordea, belarriak erne. Zer izan ote zen hura? Laminzuloaren atean ez zen inor ageri. Paretaren kontra ere ez, hiru detenituak ihes eginak ziren. Hontz handi bat pasa zen hegaka falanjisten gainean. Lainezek bota nahi izan zuen, baina pistola trabatu zitzaion eta hegaztia galdu zen Urrabiaren gainetik Alkasoro aldera. Guk geure leihotik ikusi genuen, ilargiak bete-betean jotzen zuela.

Hurrengo goizean soldadu mugimendu handia izan zen Berako harrobian eta Alkasoroko mendietan. Martinbaitara ere sartu zitzaizkigun, gure jendakia, Pedro Lizaso, buru zutela. Ez egi-

teko ergelkeriarik eta errateko non zegoen gordea osaba. Etxe osoa hankaz goiti paratu zuten. Orduan ikusi genituen Belindarendako kartak, usategiko txoko hartan.

Hontxa ez zen egundaino agertu, ez bizirik ez hila. Harrobiko paraje hura sorgindua bezala gelditu zen eta frankistak ez ziren sekula bueltatu harat inor fusilatzera. Ziburuko Teofilok erran zidan guk ikusi genuen hontz hura Kamaindegiko zulotik sartu eta hurrengo hilabeteko ilargi betean Sarako lezean atera zela.

Alkasoron, ilargi betea izan den frankotan ikusikatu dugu nola hontz bat ateratzen den Kamaindegiko zulotik eta nola ibiltzen den bueltaka herriaren gainean, eguna argitzen duenean berriz ere etorri bidetik itzuli arte.

ERNARI EZTULA

Bixente *Xixtu* benta barrenera sartu orduko, kardelina hegaka etorri zitzaion sukaldetik sorbaldan pausatzeko. Ezagutzen zuen. Gizonak esku latza paratu zion mokoaren parean, piko egin ziezaion. Txistuka saludatu zuten elkar. Gero egun on erran zien mandatuak egiten ari ziren emakumeei. «Baita zuri ere», erantzun zioten, eta segitu zuten erosten: litro erdi bat olio, azukrea, lau ogi...

Paretako erlojura hurbildu eta haren kanpoko tapakia ireki zuen. Txaketaren sakelatik atera zuen trapu zuri batekin eta haize emanez hautsa kendu zuen numeroen gainetik. Katilu moduko oliontzi bat hartu zuen gero, eta olioz bustitzen hasi zitzaion, xortaka-xortaka, behar zuten burni puska guzietan. Ondotik, sarrerako atearekin segitu zuen, eta denda-ostatuan ageri ziren guziena akabatu zuenean, bertze geletako bidean galdu zen, inork agindu gabe, bere etxean balitz bezala, behatzak ezin lasaitu, barberoa aizturre-

kin igualtsu, betiere kasko gorriko hegazti horibeltxa gainean eramaki zuela. Gizonak txistu eta txoriak kanta, edo aldrebes. Etxekoandreak irri egin zuen.

Bere lana egin zuelarik, bazterreko aulki luzean jarri zen, bezeroen bizkar eta ipurdiei begira. Piper poto bat, bakailao mazela bat... segitzen zuten emakumeek etxekoandreari eskatzen. «Luxia aterizu baxo bat ardo», galdetu zion zerbitzari gazteari. Eginiko lanaren saria. Neskatxak basoa ardoz bete eta sukaldera bueltatu zen, eztul ttikia eginez, etxeko nagusiari gosaria prestatzera.

Dolores etxalartarrak tela puska bat nahi zuen, «Txarxegoa izanta ere, gorrixta baldin bada, nahigo!». Juana etxekoandreak goxo-goxo kasu egiten zien denei. Hagitz maite zuten. Behar zuenari beti laguntzeko prest, «Zoazi, zoazi, emakumea! Pagatuko didazu posible duzularikan!».

Maindireak belar gainean hedatzeko erran zion neskatoari, eta Luxiak berriz ere gurutzatu behar izan zuen ostatua. Extul ergel hura bigarren aldiz atera zitzaionean, Bixenteri hitza eska-

patu zitzaion pentsamendutik ahora, «Hori ernari eztula dun!». Bentako nagusiak burua bueltatu zuen sukaldetik, begietan sua. «Luxia haurdun?», erran zuen bere kolkorako, sinetsi nahi ez zuela. Zingar frijitua platerean utzi eta kanpora atera zen. Neska gazteari hankak daldaraka hasi zitzaizkion, baina ez zuen deus adierazi. Etxekoandrea eta bertze emakumeak hatsik gabe gelditu ziren istant batez, haietako batek «Hobe zenuen ixilikan egon edo xixtuka segitu!» erran zuen arte. Katuak atzaparra disparatu zuen, baina kardelina erne egoki eta Van Berkel izena zuen pisuaren gaineraino hegatu zen. Olio emaileak aditu zituen guzien zintzurrean trabatuak gelditu ziren bere kontrako marmarrak, eta deus erran gabe zutitu zen, aio apal bat isuri ondotik etxe aldera txistuka abiatzeko, bere bizikleta gainean, ziztu nahiko bizian.

Martin Joxe nagusiak bodegatik garrafoiak atera eta zaldi karroan kargatu zituen. Gero, salto batean hartu zuen gurdiaren gaina. Bixenteren ateraldiak ez zion batere graziarik egin. «Puta! Luxia ernari! Horixe bakarrik behar genian!». Zaldiak ahoan sentitu zuen hankak mugi-

tzeko agindua. Mingarria, baina ez arrotza. Nabala. Frankotan bezalakoa. Agudo etorri ziren makilaren balakuak bizkarrean. Horiek hagitzez gogorragoak izaten ziren. Min isil bat uzten zioten hiruzpalau egunean. Lasterka hasi zen, lauoinka, Martin Joxeren erretolika aditzen zuela. Trenbidea tximistaren parean gurutzatu eta Berako bidean galdu ziren bi animaliak. «To! Ez nian egundaino zaldirikan hegaka ikusi!», erran zuen estazioko jefeak. Izanez ere, gurdia airean eramaki zuen, bere gurpil handiak eta guzi. Garrafoiak dantzan hasi ziren, erori ez erori, eta zaldiak are biziago mugiarazi zituen bere zango ederrak, ikaraturik, ihesi nahi eta ezin, bazekielako haietakoren batek lurra jo eta puskatuz gero, nagusiaren kolera ez zela itzaliko bere saihetsetan toberak jo gabe, eta orduan oinazeak laino bat hedatuko zuela bere begietan, Martin Joxe nekatzen zen arte.

Egia izatera, eskandalagarria izanen zen Zubiko Bentako neskatoa familia esperoan egotea, baina Juanak lanean laguntzeko Igantzitik espres ekarri zuen «haur» hark ez zuen kara onik ageri. Nola ez ote zen Juana bera lehenago ohartu! Goi-

tika botatzen hasi zenean, Bixenteren iruditua segurua zela hartu zuen segituan jendeak. Berria aitaren orduko zabaldu zen herri osoan. Etxez etxe, kontrabandoko paketea eskutik eskura bezala. Medikuak ere etorri behar izan zuen. Sobera berandu Joxepa sorgina ekarrarazi eta belarrekin erokerietan hasteko.

Juana pentsatzen hasi zen Urrabian zentrala egiten ari ziren langileetakoren bat izan ote zen, Andres izeneko kastillano batek ongi tentatzen baitzuen gaztea. Ez zuen hala ematen, ordea, Luxiak behin eta berriz uxatzen zuelako. «¡Das asco!» erraten zion denen aitzinean. Orduan Goixutak «Errejudas! Hobe din gutxi biño asko!» gehitzen zion, eta ostatuko jendeak irri egiten zuen. Etxekoandre xarmanta konformatu izanen zen Andres izatera, edo apopilo zuten Goixuta zahar hura izan balitz. Ez zuen sinetsi nahi bere baitan zinetan uste zuena, bere gizona izan zela neskatxari ezongia ekarri ziona.

«Hor zoaiek Martin *Gose*, ardoa eta hazia partitzera!», oihu egiten zuen Migel eroak irri-ajarika, Zubiko Bentako nagusia zaldi karroan pasatzen ikusten zuenean. Herriko jendearentzat, Ba-

rrentxeko zezenak adinako fama irabazia zuen. Hari behiak ekartzen zizkioten heiara. Gizona, berriz, bera joaten zen eme eske. Konparazioak ez zuen ardoketaria ikaratzen. Zutik gurdian, haizeak ile horia orrazten ziola, eta bere begi urdinak alde guzietara begira, iduri zuen nahi zuela jakin zein etxetan kendua ote zioten kisketa ateari. Bera prest zegoela nonahi sartzeko.

Larunbat arrats batean, iatsu astero bezala, bentan kartatan ari zirela, Txapeltegiko Fernando zirika hasi zitzaion, Luxia erixko bazegoen ere, ez ote zen «mejoratzen» hasi, «gerria loditzen» ari zitzaiola... Zurrutari poliki emanak baitzeuden, Martin Joxek, batere lotsarik gabe, harro-harro bota zion, «Badakik etxe honetako nagusiak ze lan egiten duen! Garrafoiak zulorikan baldin badu, nik mangera sartu eta bete egiten diat!». Juanak gau osoa pasa zuen gizonen irri zakarrak burutik ezin kendu.

Bixenteri harrigarria zitzaion kardelinak zergatik erabaki ote zuen goiz hartan kaiolatik ez ateratzea, atea beti bezala zabalik izanda. Kattu

beltxak ere goiti begiratzen zuen, ezin konprenitu. Zubiko Bentan ez zegoen bertze bezerorik, eta aulki luzean jarrita zegoen erloju konpontzaileak pinta-erdi bat ardo galdetu zion etxeko neskato gazteari, aspaldiko partez. Noizbait ere agertu zen etxekoandrea. «Egun on» erran zuen, Xixturi aurpegia eman gabe. Zarpail xamar iruditu zitzaion gizonari. Orraztu gabetanik bezala. Hura ere ez zen batere normala. Lurrera begiratzen zuen, negar eginaren seinaleak ez erakusteko, eta gizonak pentsatu zuen berak ikasi ez zuen nobedaderen bat ez ote zen gertatu. Emakumea mainguka mugitzen zen alde batetik bertzera. Zenaren berri jakiteko, hurbildu egin zitzaion polliki-polliki. Orduan ikusi zion begi ondoko ubeldu itsusia. «Eskaileretan erori naiz» erran zion, oinazea ezin gordez. Bixentek eskua sorbaldan pausatu zionean, «Medikura joan beharko zunuke...», Martin Joxe sartu zen etxera, zakur kokinaren modura, «Kentzak esku hori hortikan eta hoaie itxerat, nik ostiko emanta joan nahi ez baduk!».

Juanari gertatzen ahal zitzaionagatik arraso kezkatua eta bere buruarekin haserre, astazakil

nardagarri hari kontra egiteko gauza ez zelako izan, Bixente Xixtuk ez zuen sosegurik harrapatzen zubiaren bertze aldeko bere etxe ttikian. Leihora hurbildu eta pare-parean ageri zen Zubiko Bentari begira gelditu zen. Handik sumatzen ahal zuen benta barreneko usain nahasia. Zerbait ere gertatu zen etxe hartan. Galerna klaseren bat, bistan zena. Zer erran ote zion Juanak bere senarrari, halako pagua hartzeko? Ateei ematen zizkieten danbatekoak aditzen zituen. Makina bat olio beharko zuen haien zauriak sendatzeko! Zaldiak batere kulparik gabe aldiro hartzen zuen kastigua sekula ikusi gabeko gauzarik tristeena iruditzen zitzaion, «Anima salbo, gu bezalakoak dituk ta!». Eta Martin Joxe hark zer klasetako arima ote zuen? Garrafoiak nola ibilki zituen ikusirik, Bixentek ez zuen duda egiten, nagusiak partitzen zuen ardoa bera ere mingortua joanen zela Alkasoroko etxeetara.

Aste oso bat eman zuen Zubiko Bentara hurbildu gabe, bere leihotik zelataka.

Goiz batean, trenetik ardo fudrea nola deskargatzen zuten ikusi zuen. Zentraleko langileek lagundu zioten Martin Joxeri barrika handi hura

lurrera jausten. Campo de Criptanatik bidaltzen zuten, *Hermanos Tollar* izeneko etxetik. Hala ageri zen alde batean: HT 1278 L. Problemarik gabe ekarri zuten geltokitik benta ondoko maldaraino. Han, ordea, uste baino biziago hasi zen bueltaka, inork geldiarazten ahal ez zuela. Goixuta justu-justuan baztertu zen, bertzela gainetik pasatuko baitzitzaion, eta fudrea mendoitzan beheiti Urrabiaraino joan zen amilka, haltz gazte bat bete-betean jo eta puskatu ondotik. Etxeberriko Joxemariri aurpegiko kolorea mudatu zitzaion, ondo-ondoan tamaina hartako bonba erori zitzaionean. Larrugorritan, ilea xaboiagatik zuri eta gorputza ikarariagatik are zuriago, daldaraka, zer gertatu zen ez zekiela gelditu zen. Gorputza garbitzen ari zen Urrabian, biharamunean esposatu behar baitzuen. Ederra eginen zioten Gorrintxeko Ursulari, hainbertze kostatu gizona harrapatzea eta probatu gabe alargun gelditzen bazen!

Egun osoan jo eta ke aritu ziren gizonak, lehenbiziko zaldi gizajoarekin eta gero Barrentxeko idi parearekin, baina fudrea idorrera atera ezin. Hondarreko, kolpe txar bat eman eta zulo

koxkor bat egin zioten. Aho zabalik gelditu ziren denak, deus erran gabe, ibai azalari begira, ardo beltzak bere kartzelatik nola egiten zuen ihes, ibaiko urak bere magalean zeramala. Gau hartan sekulako besta izan zen Urrabian, aingirak xarboekin baltsean, eta amuarrainak izokinekin apustu, saltoa zeinek altuago egin.

Zerua gorri argitu zuen hurrengo goizean. Etxalartarraren kolorea. Ardoarena. Odolarena. Zubiko Bentan etxekoek ez zuten solas egiteko gogo handirik. Mugimendu zakarrak eta begirada hotzak. Bezero gutti. Baserrietako emakumeak nahitaezko mandatuak egitera, baina apenas gizonik ostatuan. Minesen Kasinoan gelduko ziren herritarren sosak. Luxia eta Juana elkarrekin goxo. Gizonaren beldur, ordea. Martin Joxe basurde kolpatua baitzen. Arriskutsua. Fama zama bihurtu zitzaion eta ez zuen ate irekirik harrapatzen, ez Alkasoron ez Beran. Ardo partitzera joan beharrean, eskopeta hartu eta leihotik tiroka eman zuen goiz osoa. Oiloen artoa jatera hurbiltzen ziren arratoiei. Berak ez bertze inork ikusten ez zituenei.

Uraldeko Frantsisko sartu zen, ikaratua, begiak euren zulotik ateratzen zitzaizkiola.

– Ikus ttuzue? Ikus ttuzue? –oihuka dendako emakumeei–. Landazelaieta bete-betea kapelu gorriz! Santakruz etorri dela, Santakruz!!! Gorde maindireak eta mantak! Gorde! Abudo, abudo! Goazen fardela egitera! Goazen! Nik botako Urrabiara!

– Lasai, aitta, lasai! Ez apuratu! –Maritxu alabak eskutik hartu eta lasaitu zuen–. Santakruz aspaldi joan zen, Endarlatsako kuartela garbitu ta gero!

Orduan soinu ezagun bat aditu zen airean eta zakurrak saingaka hasi ziren. Urteroko aiztur-zorrotzaile sudurgorria zen. Haur batzuek burla egin zioten, lotsa gabe: «¡Afilador, afilas cuchillos y dejas peor!», eta gizona maldizioka hasi zitzaien, galegoa izan behar zuen erdara batean, nabala baten aho zorrotza erakusten ziela.

Bat-batean ilundu zuen eta trumoi baten orroak harrituak utzi zituen denak. Juana kanpora atera zen, zerura begiratzera. «Jesus, Maria ta Jose! Nola berdatu duen! Uria egin behar du!»,

erran zuen; «Luxia, zoazi segitun arropa biltzera!».

Trumoien danborrak abisu eman eta goialdeko ate guziak zabaldu ziren. Euria barra-barra hasi zuen, jautsi ahalean. Egun osoa hala eman zuen, atertu gabe. Bai eta hurrengoa ere. Eta hirugarrena ere bai. Gauaz, tarteka, argia joan egiten zen, eta orduan alkasorotarrek biztuak zituzten kandela bedeinkatuen dirdira bertzerik ez zen ikusten. Mila ipurtargi itsaso beltz batean. Batzuek errezatu egiten zuten, Jaungoikoari eskatzeko haietaz urrikal zedin, eta, euriketa handiekin usatuak egonagatik, kezkaturik begiratzen zuten zerura. Bertzeetan ez bezalako gorroto bat harrapatzen zioten euriteari. Aingeru lerroek bata bertzearen ondotik egiten zuten eraso, euren tximistazko ezpatekin, jende bekatariaren kontra, gupidarik gabe.

Egunak joan egunak etorri, euri bestak ez zuen atsedenik hartzen, eta jendea lan egitetik gelditzen hasi zen, bideak urratu ahala. Bakoitzaren idorpeari zutik kontzea bihurtu zen pentsamendu ia bakarra.

Urrabia bera ere izugarri aldatu zen. Berez lasai samarra izanagatik, erreka ttiki guzietatik etorri zitzaion ur uherrak umorea aldatu zion, zainetatik pozoia sartu baliote bezala. Gizendu eta harrotu zen. Bere atzaparrekin ezker eta eskuin hasi zen, ahal zuen guzia suntsitzen. Harrapatzen zituen behiek marru egiten zuten, marranta gelditu arte, ito baino lehen, eta arbolek negar, kolpe latzen ondorioz adar bat puskatzen zien aldiro. Ahal zutenak eskapo joaten ziren, ibaiaren orroarekin ikaraturik, eta zubiak bakarrik gelditzen ziren, tinko, adiskide erotua nola edo hala segurtatu eta lotzeko esperantzan. Baina haietako ahulenak ere botatzen zituen, inondik inora sosegatu ezin zen erraldoiak. Ibai bazterretako etxe batzuk hutsik gelditu baziren ere, Zubiko Bentatik ez zen inor mugitu. Bixente *Xixtu*k ere bere leihoan segitu zuen, zigarroa erretzen. Guardian, ezbehar handiagoren bat ez ote zen ailegatuko.

Zazpigarren egunean, zazpigarrena izateagatik edo, atseden hartu zuen ekaitzak, eta aski bota zuela pentsatu zuen jende gehienak. Goibelak bakandu ziren eta isil-isilik gurutzatzen zuten

zerualdea, eguzkiari lurreraino pasatzen utziz. Herritarrak mugitzen eta etxetik ateratzen hasi ziren, ahal zuten bezala, erreka sortu berrien sarean idorretik idorrera saltoka, urak egin zituen leherkura eta kalte guziak ikustera, kendu zizkien azienda eta lurrak kontatzera.

Ordea, gutti iraun zuen bakeak. Ilunabarrean arraso ilundu eta berriz ere hasi zuen euria, aitzineko egunetan baino are gogorrago. Jendeak teilatupea bilatu zuen lasterka. Ur tantek balak iduri zuten, halako furiarekin ari baitzuen.

Bixentek ez zuen aprobetxatu atsedenaldi hori, eta ederki urrikitu zitzaion, erabakia baitzuen Zubiko Bentara joanen zela euritea gelditzen zuenean. Iruditzen zitzaion Juanak norbaiten laguntza behar zuela, eta senar zital hura zernahi egiteko kapaz zela. Ezin zuen ametitu halako emakume finari inork minik egitea. Uxatuko zituen beldurrak eta ez zuen alde eginen, Martin Joxe berriz ere harrotzen bazitzaion. Ohatzea leiho ondora eramana zuen, eta erdi etzinda emanak zituen egun haiek guziak. Zubiko Bentara begira. Zigarroa erre eta pattar botilatik

trago. Tarteka irakurri egiten zuen Urdazubin erretore zuen lehengusuak utziriko Biblia.

Ekaitza gogortu zuen gau hartan, kandelaren argitan, Apokalipsiaren puska bat zuen begien aitzinean, *eta egotz ceçan lurrera: eta eguin citecen igorciriak eta chimistac eta lur ikaratze...* Ez zen hain diferentea Alkasoron gertatzen ari zena. Balkoiko atea ireki eta kanpora atera zen. Teilatuaren hegalak ez zion behar zuen babesik ematen, baina ez zitzaion inporta. Bentan ere oraindik erne zeuden. Senar-emazteena bide zen gelan kandela biztua zuten. Urrabiaren boz ilunari erreparatu zion gero. Denak irentsi behar zituela erraten zuen espantuka. Pixa egin zuen altueratik, euriak goitiko puntatik beheitikoraino txipatzen zuen bitartean. Tximista batek desafio egin zion, sartzeko agudo barrenera, bertan kixkaltzea nahi ez bazuen. Bidenabar, Zubizabalen itxura erakutsi zion, makurtzen hasia, laguntza eskatzen bezala. «Animo, zubi zaharra! Kontu horreri! Kontu fuerte!» pentsatu zuen.

Orduan tiro bat aditu zuen. Edo trumoia izan ote zen? Belarriak zorroztu zituen, eta bertze tiro baten soinua harrapatu zuen. Ez zegoen dudarik:

eskopetaren batek bi tiro egin zituen handik hurbil. Pareko etxean noski. Zubiko Bentan, argia zegoen gelan, itzal mugimendu berezia ikusi zuen. Gero kandela itzali zuten. Orduan erotu zen. Etxean zituen botila guziak hustu zituen, zer egin ez zekiela. Leihotik atera eta atetik leihora, infernuzko ezinegona bere baitan. Kanpoan ere denboralea izugarri gaiztotu zuen, aitzineko zazpi egunetan botatako guzia gau bakar batean egin zuen berriz.

Iratzarri zenean, lurrean luze ikusi zuen bere burua Bixente *Xixtu*k. Bi eskuak burura eraman zituen. Sekulako mina zuen, boxeoko pelea batean kolpe guziak berak hartu balitu bezala. Baina gehienbat tiro soinuen danba-danba zen burua lehertu hurran sentiarazten ziona. Begiak itxi eta Martin Joxe ikusten zuen eskopetarekin leihotik tiraka. Luxia bere gerri lodiarekin eta Juana odol putzu batean. Gorputz bat Urrabia gainean eta arratoiak inguruan. Liburua irekia zegoen bere ondoan. Lurra mugitzen zela iruditu zitzaion, apokalipsian bezala. Gero, orro ikaragarri bat aditu zuen, eta norbaitek etxeko paretetan kanka-kanka jotzen zuela. Leihoetako krista-

lak hautsiak zeuden eta lurra haien puska ttikiz betea, hazia landan bezala.

Kanpoko irudiak hitzik gabe utzi zuen. Urrabia itsasoa zen eta bere etxearen behealdea ere hartua zuen. Han eta hemen ebatsi zituenak ageri ziren azalean, bere kabiara zeramatzala, uraren zurrunbiloetan preso, etxeen paretekin edo elkarren kontra joka. Zubiko Bentara begiratu zuen. Haren beheitiko partea ere Urrabiak milikatzen zuen, bere mingain latzarekin. Ez zen jenderik ageri. Pixka bat goitixeago, Zubizabal ikusi zuen, erditik puskaturik. Ateri zegoen, ordea. Zeruan eguzkiak irri egiten zuen. Erromako zubia zen uholdeak errespetatu zuen bakarra.

Aitzineko egunetako eurialdiaz gainera, marka guziak hautsi zituen tronba batek izugarrizko hondamena erein zuen zona hartan denean. Elizondo osoa hartu zuen urak azpian, eta ibai bazterretako gainerako herriak ere larri ibili ziren. Alkasoron, Otsango pareko zentral alemanaren presa urratu zuen Urrabiak eta, hondarreko, Zubizabal zubiak ere amore eman behar izan zuen. Guardia zibilak tiroka ibili omen ziren gauaz, bai eta apezak elizako ezkilak joka ere,

ibaitarrak abisatzeko. Bixentek, ordea, ez zuen ez batzuen danbarik ez bertzeen dandarik aditu. Eta, hala, etxetik ezin atera gelditu zen. Ibaiaren bertze aldera ere ezin zen pasatu, zubia konpondu arte.

Urrabia zentzatzen joan zen, guttika-guttika, egunak pasatu ahala. «Mozkorraldi pollita izandu dik oraingoan, alajinkoa!», erran zuen Migel eroak. Hainbertze urtetan irentsiriko gaitz guziak garraio eraman zituen bere ur uherretan. Garbialdia. Urak beheiti egin zuenean, ibaia bestondo lasaian zela, bazterretako zelaietan agerian gelditu ziren goitika bota zituenak. Otso goseak bezala etorri ziren alkasorotarrak euren saskiekin ahal zutena biltzera. Ondoko egunetan ederki aspertu ziren batzuk izokina eta amuarraina jaten!

Ibaiaren alde banatan, bi lagun koadrila gogotik aritu ziren, arbolak botata, zubian berriz ere pasabide moduko bat egiten. Nolabait ere paratu zutelarik, Bixente *Xixtu* izan zen bertze aldera pasatu zen lehenbizikoa. Bidea oraindik lohi eta harriz betea egonagatik, lasterka joan

zen Zubiko Bentaraino, bizpahiru aldiz lurrera erorita.

Ailegatu zenean, kardelina etxe barrenetik hegaka etorri eta sorbaldan pausatu zitzaion. Luxia eta Juana hantxe zeuden, aitzurra eta pala, ostatutik lohia ateratzeko ideian. Keinua egin zioten eskuarekin, baina bera kieto eta mutu gelditu zen, zer erran ez zekiela. Uraldeko Maritxurekin solasean ari ziren. Kontatzen ari zitzaizkion nola uholdeak eraman zuen Martin Joxe «gizajoa» gau izugarri gogor hartan, ura etxera ez sartzeko traba paratzen hasi zenean. Ezin izan zutela deus egin.

SAGARROIAREN NEGARRA

Ni nintzen tokitik hurbil, Martxeneko Luzio sagarroia bizirik erretzen ari zen. Kapritxo huraxe izaten zuen astazakil hark ilargia betetzen zelarik: sagarroi errea afaritarako. Kearen usaina sumatu nuen lehenbiziko, eta gero animalia negarrez aditu nuen, iii-iii-iii-iiiii! Orduan iratzarri nintzen.

Auzoko labaderoaren ondoan izan zen. Hantxe jaio nintzen ni. Arratsaldean bokata egiten aritu ziren emakumeak joanak ziren ni etorri orduko. Haien ahotik ateratako arranguraren bat gelditzen zen laharren artean, baina deus ez bertzerik, gainerako guzia galdua zen urarekin batera, errekaraino, ibairaino.

– Ez dakizuela zer harrapatu dudan!

Aitak besoak gurutzatu zituen petxuaren kontra, «Hau duk hau!» erraten ari balitz bezala. Irria eskapatzen zitzaion eta bere aurpegi gorria naturak bakarrik pintatzen dakien bozkarioaren erretratua zen.

– Baduzue bertze anaia bat! Muttiko ttiki-ttiki bat!

Nire anai-arreba bixkiek serio-serio begiratzen zioten maindire artetik, oraindik ere loaren sarean atxikiak. Ez zekiten egiatan aita ari ote zitzaien edo ametsetan ote zeuden. Patxik, duda hura hautsi nahizik, hitz egiteko agindua eman zion bere buruari. Solasa atera zitzaion ahotik.

– Non harrapatu duzu?

– Labadero ondoko sasi tartean, atzo arratsean! Ttiki-ttikia zen! Nigarrez ari zen! Zer ote zen ikustera hurbildu nintzen... eta muttiko bat izaki! Segituan ekarri nuen etxera, ez hozteko!

Isilka egiten zien solas, kontatzen ari zen hura sekretua balitz bezala, baina emozio handiarekin. Sei urte joanak ziren lehenbiziko umeak etorri zirenetik. Denbora luzea! Patxik eta Maddalenek ahoak zabal-zabal zituzten. Arrebak salto egin zuen ohatzetik.

– Non da? Ikusi nahi dut!

– Amarekin da! Titia eman behar baitio! Badakizue, nini ttikiek tititik esnea edaten dute! Zoazte ixil-ixilik, igual lo izanen da eta ez da komeniko ernatzea!

Lasterka joan ziren ama eta biak geunden gelara. Errietan ibili ziren, biek nahi zutelako aldi berean ama besarkatu. Amak ez zuen indarrik, baina irri amultsu bat erakusten zien. Niretzat zakarregiak ziren. Beso bat mugitu zidaten eta negarrez hasi nintzen, garrasi bizian.

– Begira ze mutturra duen! Sagarroia ematen du!

– Sagarroia ez, satorra!

Aita gelara sartu eta eskutik eraman zituen biak. Ama saiatu zen ni lasaitzera, titiburua ahoan sartu eta sartu, baina ezin ni isilarazi. Hondarreko, protesta nahikoa egin nuela iruditu zitzaidanean, amore eman eta titi guri hartatik tiraka hasi nintzen.

Etxean mugimendu handia ibili zen egun haietan. Izeba etorri zen Beratik, amari kasu egin eta aitari etxea gobernatzen laguntzera. Ama ohatzetik ez jaikitzeko, ni ere besotan hartu eta berak garbitzen ninduen gehienetan, ur epel-epelean. Ama ez zen ongi, ordea. Haurdunaldi gaiztoa eman nion, eta erditzea ere gogorra izan zuen. Medikuak normala zela erraten zion, baina izeba ez zegoen batere lasai ama hala ikusirik.

– Zer dun Maria? Ez hago ongi? Non dun mina?

– Sasi tartean erditu banintz bezala sentitzen nion, arantza ttikiek kanpotik eta barrenetik xixta egiten didatela!

Gainera, lehenbiziko aste hartan, atso-bisitak hasi ziren. Auzokoak estreina eta jendakiak gero, familiaren arbolako adar bakoitzeko hosto guziak. Oilo bana ekartzen zuten saskian, salda egiteko. Hura edanda bizkortuko omen zen ama. Baina ama nekatu egiten zen, denekin solas egin beharra!, eta niri iruditzen zitzaidan gero eta esne gutxiago ematen zidala bere bular ederretik. Horregatik gorrotatzen nituen gure bakea izorratzera etortzen ziren haiek guziak.

– Hau muttiko ederra! Nola paratu behar diozue izena? Aitaren iduria dun! Zer moduz hartzen din? Gixon gogorra eginen haiz hi! Eta hi, Maria, zer modu? Jarriko haiz polliki-polliki? Denbora behar din!

Isilik gelditzen zirenak ez bertze guziak gezurretan aritzen ziren gure aitzinean. Gero, kanpora ateratzen zirenean, elkarri erraten zioten zinetan pentsatzen zutena. Ni ez ote nintzen tti-

kiegia. Amak esnerik aski ote zuen. Eta hasten ziren konparatzen ezagutzen zituzten kasu guziekin, eta haiek berek izan zituztenekin. Konparazio guzietan, ama eta biok gelditzen ginen okerrena.

Etxeberriko atso zaharra bakarrik etorri zen. Kopetan ubeldu handi bat zuen. Batek daki norekin aritu ote zen mutur-joka bezperan, afalondoko xurrupa egin ondotik. Sukaldeko laratzarekin igual. Aitak, gerora frankotan adituko niona bota zuen orduan ere: «Hara! Joxepa sorginkoan ibili da aitzineko gauean!».

Amari harexek bakarrik erran zion pentsatzen zuena.

– Kara txarra dun, Maria! Haurdunaldia ere txarra! Nola zagon ilargia gizonarekin aritu hintzenean? Kostako zain bizkortzea! Eta muttiko horreri ere bai! Ez dion esnerik aski ematen, alafede santua!

Aitari bixigarria galdetu zion, eta aitak anisetaz bete zion kopa, nahiko gogo txarrez. Aski agudo joan zitzaizkion bromarako planak, Joxeparen erranak adituta. Bazekien ama ere gaizkitu izanen zela hura aditze hutsarekin. Nola edo

hala uxatu zuen segituan. Zuzen erranda ez, baina ezta arraso zeharka ere. Atsoak ongi konprenitu zuen gizonaren borondatea eta alde egin zuen. Kanpora atera zelarik, sakelan ekarki zuen lore-hautsa etxeko gorapean zabaldu ondotik, zeru aldera egin zuen aurpegia, haizearen usaina sumatu nahiko balu bezala, marmarika.

– Sorgina ez, deabrua dun hori! –bota zuen aitak, nola urruntzen zen ikusten zuela.

Heiara joan eta lanean hasi zen. Halaxe egiten baitzuen urduritzen zelarik. Behi bat bagenuen, mando bat ere bai, zerriak, konejuak, oiloak, bai eta ahuntzak batzuetan ere. Arrautzak biltzen hasi zen eta oilo aldrebes xamarren bat bazuela iruditu zitzaion. Bixkiak ur bazterrera bidali zituen, oilategian errun nahi ez zuen pertxenta hark Urrabia ondoko akazien artean utzi ote zuen berea.

Juangorrineko Luixito arrantzan ari zen. Haren ondoan gelditu ziren, oilo eroxkaren arrautza galduaz ahantziak. Patxik zorrotz-zorrotz begiratzen zion arrantzaleari eta eskuan zuen tresnari. Berak ere halako bat eginen zuen: Marixkeneko baratzetik kainabera bat hartu, es-

paratrapuarekin burnizko xuloak paratu, hari gogorra erosi eta etxetik piper-poto huts bat hartu...

– Luixito, haunditzen naizelarikan, lagunduko didazu potoarekin txirrika egiten?

– Bai, motel, ez apuratu horregatikan! Eta nola manejatzen den ere erakutsiko diat. Klase partikularrak emanen ttiat. Ze iduritzen zaik? Eta hik, Maddalen, hik ez dun arrantzan ikasi nahi?

– Badugu bertze anai bat. Ttiki-ttikia da. Orain dela sei egun jaio zen.

– Bazekinat. Eta gaur zazpi hil zunen gure amatxi. Batzuk etorri eta bertzeak joan!

– Arantzako osabak erraten du, bat hiltzen delarikan, ez dela joaten ez zerura ez infernura, bertze baten gorputzean jaiotzen dela. Akaso zuen amatxi gure anaiaren gorputzean da!

– Erraten du bizitza ipuin bat bezalaxekoa dela. Hasi eta akabatu. Eta berriz bertze baten gorputzean hasi, igual pertsona baten baitan edo animalia batenean.

– A, ze gogorazioak dituen zuen osaba horrek! Nik ez zekinat deus ere, biño ez niken nahiko arrainaren gorputzean bizi! Beti ur azpian,

iguzkia ikusi gabe, arrantzaleak atakean... nahiko bizimodu itsusia iduritzen zaidan.

Halako batean, kainabera mugitzen hasi zen, bizirik balitz bezala, ibai aldera kolpe handiak ematen hasi zen, urarekin batera joan nahiko balu bezala. Luixitok bere indar guziarekin kontu zion, baina bera ere eramaten zuen indar ikaragarri hark. Patxi eta Maddalen gerritik lotu zitzaizkion, haiek ere laguntzeko, baina hiruren artean ere ezin. Arrain izugarri handia behar zuen. Batera eta bertzera mugitzen zen, ibaia goiti eta ibaia beheiti. Aspaldi ez zen halako sokatirarik jokatu herrian. Hiru neska-mutilak doi-doian libratu ziren putzura erortzetik. Hondarreko, kainabera eta haria puskatzearekin, bakoitza bere alde, baina arraina nagusi.

– Zer zen hori! Ze arrain klase ote zen? Nola tiratzen zuen!

– Aditu du erran duzuna eta haserretu da.

– Norbait hagitz indartsua izanen zen arrain horren barrenean.

– Orain dela hiru urte Joxantonio Haundi hil zuken, putzura erori eta itota. Ez zate oroitzen? Sekulako indarra ziken gizon harek! Huraxe bera

izanen zuken, izoki baten baitan. Seguro Joxantonio Haundi zela!

Eta Joxantonio Haundik jauzi egin zuen uretatik airera, haria, amua, beruna eta dena herrestaka zeramala. Kontent, ederretik-libratu-naiz edo aio-bertze-bat-arte erranez bezala.

Jaio nintzenetik bi aste joan ziren, egun bakar batean ere euri-ttanttarik bota gabe. Ez zen normala uda tamaina hartan aitzintzea. Etxeberriko Joxepak erraten zuen zerbait txarraren seinalea izanen zela, eta gure aita nerbiostu egiten zen hari aditu aldiro. Amak igualtsu segitzen zuen. Lehenbiziko egunean bezain ahul harrapatzen zuen bere burua. Ezin ohatzetik jaiki eta etxeko martxan jarri. Oilo-saldak ez zuen milagrorik egiten. Gainera izebak Berara bueltatu behar izan zuen. Bere etxean behar zutela erran zion aitari, baina ez zen egia. Amets gaizto bat izan zuen: bere besotan hilen nintzela sartu zitzaion buruan. Nik, zenbat eta gose handiagoa, orduan eta negar-kanta zakarragoa. Amak titiarekin isildu nahi izaten ninduen, baina beroteak hura ere

agortuxea zuela ematen zuen, Baldrungo erreka bezala.

Egun batean oiloek ez zuten arrautzarik errun, mirua zeruan bueltaka ibili zelako. Oilarra zerura begira, zakurra ere igual eta oilo guziak nerbioso. Bat bakarra bildu zuen aitak eta huraxe eman zion ama gero eta itzaliagoari, afari gisara. Aitarentzat berarentzat eta anai-arrebentzat katilu bana esne. Ez zen bertzerik. Behia ez zuen miruak ikaratu. Beharrik!

Ordea, katiluak mahai gainean zeudela, katua agertu eta Patxirena irauli zuen. Lurreko egurrak gogotik milikatu zituen animalia zitalak. Patxiren negarra bakarrik falta genuen etxean! Katua harrapatu izatera, ez zen lukainkarik falta izanen biharamunean. Nonbait gorde zen urde hura. Bakoitza bere ohatzean, aitari ere busti zitzaizkion begiak, maindire azpian, loaren sosegurik ezin bildu.

Gauaz, leihoaren bertze aldean, haize hego zakarra espantuka hasi zuen, eta Martin *Itsuaren* maldizioak aditu genituen, tiroak airera bezala. Ea nor ari zitzaion burlaka! Eta orduan eta handiagoa haize eroaren txistua. Ama sukarrak kix-

kaltzen zuela jarri zen, eta medikuari deitu zion aitak. Hark amarengandik bereizi behar nuela erabaki zuen. Ez baitzen tenorea ugazama bilatzen hasteko, behiaren esnea ematera saiatu ziren. Nik ez nahi ordea. Gero eta garrasi handiagoa egiten nuen. Lo ziren anai-arrebak ernatu eta sukaldera etorri ziren. Aitak besotan ninduken, bularraren kontra, zer egin ez zekiela. Nik negar eta negar, bixkiak ere kutsatu eta hirurak batera hasi ginen, zeinek gogorrago. Aitak ezin zuen jasan hura. Erotu zela iruditu zitzaigun. Lasterka eraman ninduen eskailerak beheiti, heiaraino. Han kieto gelditu zen.

Iluntasunarekin isildu nintzen. Aziendak lo ziren eta usain berezi bat sumatu nuen airean. Aitak pauso batzuk egin zituen txoko batera. Etzinda zegoen ahuntz emeak burua altxatu zuen. Ni beso batekin lotzen baininduen, bertze eskuarekin alde batera egin zituen amaren hanken artean zeuden bi antxume koxkorrak. Orduan, kontu handiarekin, ahuntzaren magalean pausatu ninduen, titirik beteena ahoaren parean nuela. Animaliaren ileek kilika egiten zidaten, eta lehentxeago goxoa iruditu zitzaidan usaina-

ren partez usain gogorregia sartu zitzaidan sudurretik. Isilik segitzen nuen. Aita eta ahuntza bera bezala. Besoak luzatu eta eskuekin animaliaren sabelalde guria ukitu nuen. Ez zen amarena, baina hura ere beroa zen. Aitak pixka bat estutu ninduen titiaren kontra. Ahoa zabaldu nuen eta ezpainekin sentitu nuena gustatu zitzaidan. Tiraka hasi nintzenean, esne beroa aisa etorri zitzaidan zintzurretik beheiti, tripa-zorroraino. Ase arte edan nuen. Gero lo gelditu nintzen.